

KARKARA



UDALHIZTEK
PROIEKTUA

**TEKNOLOGIA
BERRIAK
EUSKARAREN
BIDELAGUN**

PUBLIZITATEA



22, 26, 28,
49, 55 eta 60
eserleku dituzten
literadun autobusak
ditugu.

Bidaia eta ezkontzetara edo
sagardotegira joateko.

**Ubegun industria gunea, 4
AIA-ORIO**
943-13 28 93 · 656 78 29 99 (Gabino)
Fax-a: 943-89 05 62
alustiza@autocaresalustiza.com



Olaskoegia z/g
AIA-ORIO
943-13 04 38

ANORGA TXIKI, S.L.
KRISTALDEGIA

Oria etorbidea, 4
LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com
www.cristaleriaanorgatxiki.com
943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak



Lurretik
Garbiketak

SERVICIO INTEGRAL DE LIMPIEZA

- Garbiketa orokorrak
- Etxebizitzak
- Bulegoak
- Obra amaierak
- Garajeak
- Ostalaritza

Santio erreka 41, Aia-Orio
636 18 82 92 / info@lurretik.es

edaritegia **Antilla** *jateetxea*

Abeslari kalea, 2
ORIO
943-83 23 09

- Menuak
- Plater konbinatuak
- Errazioak
- Ogitarztekoak

Pelotari, 5 · ORIO
943-83 00 34
autolan13@hotmail.com

AUTO - LAN C. B.



arkaitz taberna
••••• uio

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

*Terraza ederrenekin
giro ezin hobea*

abeslari kalea 6 - 943-83 16 57



fontana
iturgintza

iturgintza · gasa · berogailuak

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoaren instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dubxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

Arrantzale kalea, 3 · ORIO
fontana-jul@hotmail.es
www.fontaneria-fontana.com
943-53 98 88 · 661 26 28 28



azkue
karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7
AIA-ORIO
943-83 51 86

Carmen eta Txomin
ARRAINDEGIAK

TXOMIN ARRAINDEGIA
Eusko Gudarien kalea, 44
943-83 27 47

CARMEN ARRAINDEGIA
Arizaga kalea
943-83 05 37





KARKARA 429

2021-EKAINAREN 4A
AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- 5 **Iritzia** Aiora Larrañaga Solaberrieta
Etorrizunean, euskaraz barra-barra
- 6 **Hitz tantak** Aiora Larrañaga
Solaberrieta
Jesus Mari Perona
- 8 **Izpiak eta hizkiak** Iñigo Gaiton
Ramadanaren bukaera
- 10 **Gutunak**
- 12 **Oroimenaren kutxa** Iñaki Iturain
Gu, munduko oriotarrak
- 17 **Herrian galdezka**
- 18 **Elkarrizketa** Aiora Larrañaga
Solaberrieta
*Jabier Zabaleta eta Itziar Cortes:
"Oso inportantea da burujabetza
teknologikoa, euskarari behar duen
garrantzia emateko"*
- 24 **Bazkidetza**
- 25 **Ikasleak idazle** Zaragueta Herri
Eskola
- 26 **Erreportajea** Iñigo Gaiton
*Oriophile baten oroitzenak eta
digresioak*
- 33 **Moila bazterretik** Eli Huegun
Beste istorio bat
- 34 **Akuilua hartuta** Unai Aizpurua,
Andoni Fernandez Ostolaza, Aurora
Makazaga eta Iñigo Urdinaga
Olatu artifizialik ez Donostian!
- 35 **Nire honetan** Leire Martija
Hor dago koska
- 37 **Osasuna** Bittor Andres
Mantso-mantso mendian gora
- 40 **Albiste laburrak**
- 42 **Plazan bazan**
- 44 **Zerbitzuak**
- 45 **Agenda**
- 46 **Hasi bertsotan** Joseba Altuna

KARKARA



Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-83 15 27
karkara@karkara.eus
www.karkara.eus
Lehendakaria
Rikardo Uzkudun

Erredaktoreburua

Aiora Larrañaga
Solaberrieta

Erredaktore taldea

Onintza Aiestaran
Onintza Lete Arrieta
Elizabete Manterola
Iñigo Gaiton
Rikardo Uzkudun

Diseinu arduraduna

Ane Azkue
Publizitatea
Leire Martija
**Zenbaki honetako
kolaboratzaileak**
Iñaki Iturain
Eli Huegun
Leire Martija
Bittor Andres

Banatzzaileak

Endika Ruiz (Orio)
Manex Dorronsoro (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-346/90
ISSN: 1132-1105
Tirada: 3.450 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



AIAKO
udala

PUBLIZITATEA



IGLESIAS SARRAILAGILEAK

iglesiascerrajeros@yahoo.es
www.iglesiascerrajeros.com
Erribera kalea, 14 · ORIO
637 72 33 08

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

24orduko zerbitzua

Gabon
TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7
943-83 06 09



Joseba
ARROZTEGIA · CARPINTERIA

687 683 427
josebaarotza@gmail.com


ATEAK
ZOKALOK
ARMAIRUAK NEURRIRA
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARROZTEGIA OROKORREAN



GARMENDIA

Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak

943-83 44 66 · 688 75 59 48
Ibai Ondo, 1 · ORIO
info@egarmendia.com



KAIOA

kaioa_denda
www.kaioa.es


ITZIAR
KIROLAK

Eusko Gudarien kalea, 23
ORIO
943-83 31 03



%100 etxean egina
PIZZERIA KALETA

Arrantzale kalea, 10
943-24 89 46



Kolon Txiki
edaritegia · jatetxea

Herriko Enparantza 4
ORIO
Tel.: 943-83 00 44




KATU HORIA
albaritaritza klinika

ESTROPALARI, 10
20510 ORIO
tel. 943 11 66 99

Larrialdia:
668891129

K·U·K·U·A·R·R·I
ELEKTRIZITATEA

943-10 01 81 · 640 28 13 08
Zigordia, 52 beheka C · ZARAUTZ
kukuuarri@kukuuarri.com



LASTER DESATASCOS

- Libraketak
- Hobi septiko eta putzu beltzen garbiketa
- Uholdeetako uren hustuketa
- Teilatu hodian garbiketa
- Saneamendu sareen ikuskapena
- Puzkatutako hobien geolokalizazioa
- Ur jarri atzematea
- ...

desatascos@desatascoslaster.com
www.desatascos.com

24orduz 688 88 65 36 (Larrialdia)

Abaromendi 3, 20810 ORIO · Sagar Erreka 21-A, 20590 SORALUZE · 943-75 14 31 (bulegoa)

Etorkizunean, euskaraz barra-barra



AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Euskararen benetako misterioa ez da bere jatorria, iraupena baizik. Adur Larrea ilustratzaile eta komikigilearen esaldi hori irakurri nuen pasa den astean sare sozialetan, eta euskararen etorkizunaz zer pentsatua eman zidan. Izan ere, euskara mendeetan zehar bizi-bizirik mantendu eta gaur egunera iritsi bada, herritarrok eta gure arbasoek euskaraz hitz egin dugulako izan da.

Etorbizuna kezka begiratzen dute askok ordea, eta kanpotik etorri diren herritarrek euskara ez dutela ikasten azpimarratzen dute. Ez da gai samurra, eta iritzi kontrajarriak egon daitezke, gainera. Agian, arrazoi dute diotenean kanpotik etorri direnek ez dutela euskara nahi genukeena bezainbeste ikasten, baina aitortu behar da euren seme-alabek euskaraz barra-barra egiten dutela eta euskararen etorkizunarentzat seinale ederra dela hori. Hala, Aiako eta Orioko ikastetxeek arlo horretan egiten duten lana goraiatu behar dugu, oztopo handiak gaintuz eta baliabide gutxiarekin lortzen dutelako haurrek euskaraz ikasi eta hitz egitea. Bejondeizuela!

Jatorri desberdinetako aiar eta oriotar askok, esaterako, seme-alabekin batera ikasten dute euskaraz, modu informalean; ez noski elkarriketa oso bat euskaraz jarraitzeko moduan, baina asko eta asko gai dira ulertzeko, baita esaldi motzen bidez erantzuteko ere. Nik neuk etxean dut adibide garbia. Senarrak semearekin ikasi du euskaraz; aitak semeari wolofez hitz egiten dio, eta semeak oraindik hizkuntza afrikarra ondo hitz egiten ez duenez, euskaraz erantzuten dio askotan. Askotan bitxia iruditzen bazait ere, primeran ulertzen dira elkar. Agian zenbaitentzat aurrerapauso txikia izan daiteke, baina nire iritzi munduaren beste muturretik etorri denak euskaraz ulertzea eta ahal duen heinean hitz egitea, albiste ederra da hizkuntzaren etorkizunari erreparatuta.

Hiztunek erabiltzeaz harago, bada euskararen etorkizuna baldintzatzen duen beste faktorerik: erakundeek euskaraz funtzionatzea. Era berean, euskararen etorkizunarentzat ere ezinbestekoa izango da mundu digitalean presentzia izatea. Arrazoi horientatik heldu diote Orioko Udalak eta Elhuyarrek Udalahiztek proiektuari, "ahal den heinean udalean euskara hutsez lan egiteko, baina inor bazterrean utzi gabe", azaldu du Jabier Zabaleta Euskara teknikariak. Argi adierazi du Itziar Cortes ingeniariak ere: "Aro digitalean murgilduta gaude, eta ezinbestekoa da hizkuntza teknologietan aurrerapausoak egitea, euskaraz presentzia eta indarra izatea nahi badugu". Hainbat garai ezagutu ditu hizkuntza zaharrak, baina oztopoak gaintuz jakin du. Horregatik, oraingoan ere hautu kontzientea egin beharko du gizarteak euskara garai berrietara egokitzeko, gure ondorengoek komunikatzeko beste hizkuntzak erabiltzea nahi ez badugu behintzat. ■■■

**HAUTU KONTZIENTEA
EGIN BEHARKO DU
GIZARTEAK EUSKARA
GARAI BERRIETARA
EGOKITZEKO**

Jesus Mari Perona

TESTUA ETA ARGAZKIA: AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Maisua da Jesus Mari Perona (Orio, 1952) itsasontzien maketagitintzan, eta hainbat aitorten jaso ditu arlo horretan. Horrez gain, arraunarekin erlazio estua izan du beti, bera ere ibilia baita arraunean, eta orain, 'Memoria arraunlari' lana sortu du koaderno formatuan. Orio Arraunketa Elkartearen lehen urteak jaso ditu bertan.

Nolatan sortu zitzaizun lan hau abiatzeko ideia?

Duela bi urte, 1973ko zortzikoa osatu genuen arraunlariak juntatu ginen 45. urteurrena ospatzeko, eta Iñaki Arrillagak gogoratu zigun marka ona egin genuela zortzikoarekin; 05:49 denbora. Hari horri tiraka hasi nintzen dokumentuak arakatzeko, urte askotako artxibo lana baitut. Patxi Sarasuari ere eskatu nion laguntza, Orioko arraunaren historia jasotzen duen argazki bilduma handia duelako.

Nola osatu duzu lana?

Garaiko egunkarietako artikuluak, argazki zaharrak, emaitzen taulak, markak, bitxekeriak... jaso ditut. Horrez gain, aipatzen ditut gaztetako oroitzapenak, Jorge Oteizak Orioko arraunlariari egindako omenaldia, arraunketa olinpikoaren historia eta Orio Arraunketa Elkartearen sorrera, besteak beste. Elkartearen lehen urte haietako filosofia azpimarratu nahi izan du, mugimendu handia sortu baitzen herrian.

Arreta berezia jarri duzu arraunketa olinpikoan.

Bai, uste dut arraunketa olinpikoak egin duela Orioko arraun elkarte handi. Tostako arraunketaren oihartzuna oso mugatua da, Kantauri itsasoan soilik jokatzeko delako. Arraunketa olinpikoan, ordea, garaipen handiak lortu ditu Orioko munduko talde onenen aurka arituta. Nire iritziz, Orioko arraunketa elkarteak ez litzateke gaur dena arraunketa mugikorrik gabe. Mugari garrantzitsua izan ziren, esaterako, 1968an eta 1969an Orion jokatu ziren nazioarteko estropadak. Oxford eta Cambridge handiak etorri ziren, eta festa ikaragarria izan zen. Ni orduan gaztea nintzen, eta gogoan dut herriko bandako hainbat kide ontzi batean sartu ginela eta errio bazterrean, uretatik, gure

doinuekin jai giroa alaitzen aritu ginela. Hura bai arraunaren festa!

Orion arraunketa olinpikoa bultzatu zuten herritarrak ere aipatu dituzu lanean.

Bai, herriko gazte talde batek sortu zuen Orio Arraunketa Elkartea 1965ean, Emilio Olazabal zarauztarraren laguntzarekin, arraunketa mugikorra sustatzeko. Ordura arte, trainerua ateratzen zen herrian, baina horretarako batzordetxo bat sortzen zen urtero, eta ez zuen jarraikortasunik. Horregatik, herriko hainbat gazte arraun elkarte sortzera animatu ziren, tartean Patxi Sarasua, Antonio Campos, Iñaki Agote, Vicente Zaldua, Miguel Santamaria eta Luciano Manterola. Pixkanaka, ontzi berriak lortu eta herriko gazteak arraunketa mugikorra probatzera animatu zituzten; azken horretan lan garrantzitsua egin zuten Juan Lizarralde 'Altzerri'-k eta Patxi Sarasuak. Garai hartako gazteek ilusioz hartu zuten proiektua. Kirol arloan emaitza bikainak eskuratu zituzten, eta, gainera, elkarteak oso denbora gutxian mila bazkidetik gora izatea lortu zuten. Ontziak gordetzeko tokirik ez, eta Lontzoneko bildegia utzi zioten elkarteari musu-truk; bulego gisa, berriz, Amilibia taberna erabiltzen zuten. Aipatutako izenez gain, herritar askok egindako isilpeko lana ezinbestekoa izan zen, eta horiek ere aipatu ditut lanean.

Kanpoko aholkulariak ere izan zituen elkarteak, ezta?

Bai, Peter Karres arraunlari alemaniarrek egindako lana, esaterako, ezinbestekoa izan zen. Arraun elkarteko zuzendaritza harremanetan jarri zen berarekin, arraunketa olinpikoko alderdi teknikoan lagundu zezan. Neurriak egokitzen eta ontziak puntuan jartzen irakatsi ziren oriotarrei, eta horrek bultzada handia eman zion klubari. Horrez gain, izan zen alderdi fisikoan urrats garrantzitsuak egin zituen prestatzaile bat ere: Albert Mainella.

Lana amaituta daukazu. Zein da zure helburua?

Nahi nuke erakunderen batek argitaratzea herritarren eskura egon dadin. Bien bitartean, interesa dutenei PDF formatuan bidaltzen ari naiz. ■■■



Ramadanaren bukaera

ARGAZKIA ETA TESTUA: IÑIGO GAITON

Maiatzaren 13an, Ramadan amaierako festa egin zuten musulmanek Orioko frontoian. Ehun lagunetik gora elkartu ziren, Oriokoak eta meskitarik ez duten inguruko herrietakoak —Aia, Zarautz, Getaria...—. Aurtengo Ramadana apirilaren 12an hasi zen, eta ohi bezala, 30 egun iraun ditu. Meskitakoek nabarmendu dute hilabete sakratua izaten dela, bai fisikoki, bai espiritualki. Egun horietan guztietan, egunsentitik ilunabarrera arte ez dute jan-edanik egiten, zigarrorik erretzen edo sexu harremanik izaten. Horrez gain, Korana maizago erreztatzen dute, eta pentsamendu onak izaten saiatzen dira. Egutegi islamiarrak eta gregorianoak egun kopuruan duten desberdintasuna dela-eta, datorren urtean apiril hasieran hasiko da Ramadana, aurtan baino hamar edo hamabi egun lehenago. ■■■





Lusarbe atsedenekutik erraustegira!

IRRIPARRA BERRESKURATU

Pandemiaren hasieratik hona, murrizketa neurriek onartzen zuten heinean, hiri eta herriguneetatik irten eta naturagunera jo dugu guztiok nahaspilan. Asteburuan benta inguruko merenderotik bueltatxo bat ematea nahikoa zen, beldurtu eta lasaitasun bila Urbil merkatal zentrorra ihesi joan nahi izateko. Astelehenean berriz ere bertara jo eta, orain bai, bakea nagusi. Baina, hara! Pasatako egun bikainaren eskertzan, zabortegei bateko irudi ximela mutur parean; ikaragarritzko hondakin pila lurtean eta edukiontzirik ez begi-bistan. Noski, gazte kuadrillen desfaseak prezio bat du, aiiii...gazteak... Gazteek eramango al zituzten edukiontziak etxera?

Bueltan bueltan, zer egin du zabor kudeaketaren eskumena duen Urola Kostako Mankomunitateak honen aurrean? Lehenago zabor edukiontzirik ez zen lekuan, ipini dituzten bost edukiontzietatik lau errefuxarenak dira. Gauza bera, Benta jatetxea zenaren parean dagoen edukiontzi gunean. Ai... zein arduragabeak diren gure gazteak...

Gertakari horrek, instituzio bat du atzetik, udal elkarteak eta estrategia garbi bat; goi-goian, Lourdes Salsamendi. Ez da urte erdia pasa hurrengo hitzok

birziklapenaren kanpaina hasi zutela. "Herritarra inplikatu nahi dugu eta bat eginik Urola Kosta garbi, ekologiko, jasangarri eta politika publiko partekatuan oinarri eraikia garatu". Inplikatu, zertan? Herriaren begi-bistan ezin egin horrelakorik. Bai, ordea, zaborraren arazoa azkenekotzat sentitzen duten merenderoaren erabiltzaileen aurrean. Noski, guztiak ez ditugu zaku berean sartuko, baina asteburua joan asteburua etorri, bertan aurkitu dugun panoramak baieztapen hau egiteko baimena eman digu.

Gure agintariak erraustegia piztu bezain pronto konturatu dira Gipuzkoan ez dela erraustegiak behar duen adina zabor sortzen; bi labeetatik bat soberan dute lehen momentutik. Jakitun dira sortzen duten errefusa behar-beharrezkoa dela erraustegia elikatzeke, eta Oriok tximinia toxiko hori muturren aurrean izanagatik, ez du birziklapenean hobetzeko ahaleginik egiten. Urola Kostako Mankomunitateak eta eraginkortasun gutxiko gaikako bilketa duten beste herriek ez dute hobetzeko borondaterik. Ulertezina eta lotsagarria egiten zaigu herrian jarri berri dituzten txabolatxo eta informazio gune horietan indarrak ipintzea, Gipuzkoako herri askok ardurazko gaikako bilketa arrakastatsu baterako bidea zein den erakutsi dutenean.

Horren harira, urteetan zehar bere alderdi politikoak erabili duen azpijokoa birziklatu, eta egitasunetik hitz egin dezan eskatzen diogu Lourdes Salsamendiri. Zein da bost edukiontzitik lau errefusarenak jartzearen arrazoia? Min eman arren, onartu genezake zabor bilketa arduragabe bat eta erraustegi bat, herritarrak ongi eta zintzo informatuak izan eta irtenbide hori hautatuko balute. Kaleetan kolore bakarreko edukiontzia izan eta zuzenean erraustegira bidali, guztia erre eta guztiak intoxikatu. Ez jolastu ordea herritarrekin eta amalurrarekin, begi-bistakoa da zuen diru gosea, maltzurkeria eta *politikeoa!*

Ohartu zaitezte gure agintarien hitz eta ekingen atzeko xake partida mugimenduz. Honi aurre egin ezean, zaborrak begien bistatik kenduko dizkigute, bai, baina hauek erretzen sortzen diren gas isuri, zepa eta errauts toxikoak konponbiderik ez duten kalteak eragingo dizkigute osasunean eta ingurumenean.

Azpijokodun *politikeoa* erraustu!

Bertako basoak guztiontzat

HERRIO NATUR TALDEA

Herrikidea, HERRIO natur-taldea aspalditik ari da Orioko ingurumenaren alde lanean. 20 urtez hain zuzen ere. Ekologia-kontzientzia lehenagotik piztua

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orío

bagenuen ere, pandemia honek oraindik ere nabarmenago erakutsi digu zer nolako garrantzia duen herri inguruneak guztion bizi-kalitatean. Inoiz baino premia handiagoa sumatu dugu etxetik atera eta paseoan ibiltzeko, mendira joateko. Orioko inguruak, ordea, ez daude nahiko genukeen bezain ondo. Basoei erreparatu, esaterako, pinudien gainbeherak orain eukaliptoaren mehatxua hedatu du. Badakigu enpresa pribatuak lurak erosi eta eukaliptadiak sortzen ari direla. Horren adibide dira Bizkaiko hainbat herri eta oraintsu Gipuzkoako beste zenbait..

Mehatxu horri aurre egin nahirik, antolatu genuen Lurguia fundazioarekin hitzaldia (lotura honetan ikusgarri duzuen <https://www.orio.eus/albistek/17652-lurguia-fundazioko-kideen-hitzaldia-bideoan-ikusgai>). Eta hitzaldiaz geroztik, Orion ere, halako proiektua aurrera eramateko asmo irmoa dugu. Lehenengo pausua, lursail pribatuak erostea da. Horregatik, salmentarako nahiz kontzesioan lurak uzteko interesa izan dezaketen Orioko lurjabeak gurekin harremanetan jartzea nahiko genuke: herrionaturtaldea@hotmail.com.

Baina pausu horretarako dirua behar dugu. Batetik, Herriok udala animatu nahi du bizilagun guztiontzat baso erakargarriagoak bultzatzen, lurak erosituz, eta hauetan zein lehendik ditugun herri-lur apurretan bertako basoa

landatuz. Bestetik, ordea, uste dugu erakundeei eskatzeaz gain, herritarrok ere badugula zer egin. Eta, gure basoa bultzatzeko lur-erosketa honetan parte izan gaitezkeela. Gure asmoa ez da, noski, egurrarekin negozioa egitea, baizik eta herritar guztiontzat zabalik egongo den basoa bultzatzea. Horregatik, Orioko ondare naturala hobetzeko kezka duzuen herritarroei proiektu honetan parte hartzeko gonbidapena luzatu nahi dizuegu. Ekarpen ekonomikoa egiteko interesa izan dezakezuen herritarrak animatu nahi zaituztegu. Eta momentu honetan horrelako ekarpena egin ezin duzuenok, berriz, lursailak erosi ondoren egingo ditugun berreskuratzeko-lanetan parte hartzea animatzen zaituztegu.

Erosiko ditugun lursailen jabetza edota eskumena Lurguia Fundazioak izango du eta inoiz ez dira erabiliko pertsona edo erakundeak aberasteko. Proiektu honen helburu nagusiak gure inguruko basoetako biodibertsitatea kontserbatzea eta natura-ondarearen kudeaketa sustatzea izango dira aitzitik.

Dohaintzak egiteko linka ondorengo da: <https://lurguia.org/eu/nire-dohaintza>. Eskuragarri dauden metodoak txartela, bizum edo transferentzia izan daitezke. Kontu korrenteen zenbakiak: Laboral Kutxa: ES46 3035 0057 9205 7006 7247 eta Kutxabank: ES15 2095 0010 4091 0424 1520.

Garrantzitsua. Zuen dohaintzetan ORIOKO BASOAK kontzeptua eta zuen izen abizenak edo NANa jartzea, ekarpenak ondo identifikatzeko. Egiaztagiria herrionaturtaldea@hotmail.com helbidera bidali gero.

Jakin ekarpenek zerga-arintzea dutela. Lurguia Fundazioari egindako ekarpenek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan desgrabatzen dute. Eta erakunde juridikoen kasuan, ekarpenak gastu kengarritzat hartzen dira. Horretarako, <https://lurguia.org/eu/nire-dohaintza> linkean dagoen formularioko eremu guztiak bete behar dira.

Mila miloi esker gure ilusio honen parte izan nahi duzuen guztioi. Eta aurrera bidean, izango gara. ■■■

JAIOBERRIAK

- **Manex Zaldia Manterola.** Orion, maiatzaren 2an.
- **June Soraluze Fernandez.** Orion, maiatzaren 15ean.
- **Jon Solaberrieta Mugika.** Orion, maiatzaren 22an.

HILDAKOAK

- **IzenAbizenakxxxx.** Herriaxxxxn, hilaxxxxren 0ean. 00 urte.
- **IzenAbizenakxxxx.** Herriaxxxxn, hilaxxxxren 0ean. 00 urte.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). **KARKARAK** eskubidea du gutuna laburtzeko. **KARKARAK** ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. **Egileak** hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, **guk** egilea nor den jakinda. **Gutunean** norbait aipatzen baldin bada eta **persona horrek** gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, **KARKARAK** esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak **KARKARARA** bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orío

Gu, munduko oriotarrak



IÑAKI ITURAIN iiturain@gmail.com

ARGAZKIAK: IÑAKI ITURAINEN ARTXIBOA

Aurtengo maiatzaren 21ean ospatu zen Kultura Aniztasunaren Nazioarteko Eguna. Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2001ean onartu zuen Unesco egindako kultura aniztasunaren aldeko aldarrikapena: "Kulturak, bere aniztasunean, balio handia du herrien garapenerako eta gizarte kohesioa eta bakea lantzeko. Kultura aniztasuna

indar eragilea da gizartea garatzeko eta gizabanakoon bizitza aberasteko arlo askotan: adimena, harremanak, etika eta espiritua".

Orioko Udalak arreta berezia eman nahi izan dio aurren maiatzaren 21eko ospakizunari, gaiari dagokion garrantzia nabarmentzeko. Horretarako, Udalak aho batez aldarrikapen bat egin zuen kulturaren balioak azalduz eta kultura aniztasunaren aldeko jarrera erakutsiz.

Oraingo oriotar zaharrenak haur ziren garaian, herritarren kultura homogenea eta uniforme zen: ia guztiak euskaldunak ziren hizkuntzaz, gehienak gaztelaniaz ere moldatzen ziren gutxi-asko; bi horiez gain, ez zekiten beste hizkuntzarik; kristau katolikoak ziren eta mezatara joaten ziren igandero; gizonak arrantzari eta nekazaritzari lotutako ogibideetan aritzen ziren lanean; emakume gehienak, berriz, etxeoandre; bikote



Espainieraz: "Tenemos alimentos, canciones y palabras diferentes, pero igual necesidad de comer, cantar y comunicarnos".

onartu guztiak heterosexualak ziren; haurrak zituzten guraso ia denak ezkontuta zeuden...

Kultura aniztasuna izugarri handitu da azken urteotan Orion; bereziki XXI. mendean atzerritik etorritako bizilagunekin. Gure historia hurbilean, bi jende-olde handi etorri dira hona: lehenengoa XX. mendeko 60ko eta 70eko urteetan izan zen, eta orduko etorkin gehienak Espainiatik heldu ziren: Extremadura, Gaztela, Andaluzia... Bigarren jende-oldea XXI. mendean ari da gertatzen, eta oraingo etorkinen jatorria askoz ere pluralagoa da: kontinente guztietakoak dira eta oso ezaugarri desberdinak dituzte.

Munduko zenbat naziotan jaioko ote dira gaur egun Orion bizi diren herritarrek? Zenbat hizkuntza hitz egiten ote da herrian? Zenbat ez ote da luzatu gure jan-edanen zerrenda? Zenbat erlijiotako sinestunak ote daude herrian? Galdera horiei erantzuna ematea izan liteke gaia lantzen hasteko ariketa gokia.

Kultura aniztasunaren festa

Herrian sortutako aniztasun berri horren jakitun, Orioko Udalak Kultura Aniztasunaren Festa antolatu zuen sei urtez segidan, 2009tik 2014ra. Etorkinentzako euskara ikastaro batetik abiatuta, oinarritzko euskara ikasten ari ziren etorkinekin festa bat antolatu



Brasilgo portugesez: "Os alimentos, canções e palavras podem ser diferentes, mas compartilhamos a mesma necessidade de comer, cantar e nos comunicar".



Ekuadorreko kitxuz: "Shikan shikan mikunakunata, kawaykunata shimikunatapash charinchik. Shinapash chay mutsuyllata mikunkapak, kawankapak, rimankapakpash charinchik".



Arabieraz: قد تختلف أطعمتنا وأغانينا وكلماتنا، لكننا كلنا لدينا نفس الحاجة إلى تناول الطعام والغناء والاتصال مع الآخرين.



Senegalgo woloferaz: "Lekkyi, woyi ak batyi mannanio wute, waye nio bok sokhla lek, woy ak jokkante".



Euskaraz: "Desberdinak ditugu janariak, kantuak eta hitzak; baina premia berdina, jateko, kantatzeko eta komunikatzeko".



Ingelesez: "We have different food, songs and words, but we all share the same need to eat, sing and talk".

zen, helburu bikoitzarekin: euskararen bidez herrian integratzen laguntzea, eta haien jatorrizko kulturak ezagutaraztea.

Festa hartan ekitaldi ugari antolatuta zituzten elkarlanean Udalak eta etorkinen ordezkariak: hitzaldi, mahai-inguru, sukaldaritza ikastaro, kantaldi, futbol partida, dantza, capoeira, bertso saioa... Festa koloretsua izan ohi zen.

Sei urteotan munduko bazter askotatik etorritako oriotar berri ugari parte hartu zuten: Senegal, Maroko, Brasil, Nikaragua, Ekuador, Sahara, Kuba, Mexiko, Portugal, Argentina, Honduras, Bolivia... Nazio ugarietako herritarrak elkartu ziren herriko plazan, elkarren arteko zubiak eraikiz.

MUNDUKO ZENBAT NAZIOTAN JAIKOTAK OTE DIRA GAUR EGUN ORION BIZI DIREN HERRITARRAK?

2010ean Udalak, herritarren izenean, mezu hau transmititu nahi izan zien kanpotik etorritakoei: “Guk

aintzat hartu nahi dugu zuen kultura, zuen hizkuntza, eta gurea ikastera gonbidatu nahi

zaituztegu”. Adierazpen hura egiteko, ondoko olerki hau aldarrikatu zuten festan batu ziren herritar guztiek:

Gu, munduko oriotarrak

*Gu, Afrikan, Amerikan, Asian edo Europan jaiotako oriotarrak,
gaurko festak batu gaituen herritarrak:
emakume, gizonezko, gazte eta zaharrak,
elkarrekin jan, edan, kantatu eta dantzatuko dugun mundutarrak,
ados agertzen gara, herriari hauxe azaltzeko:
desberdinak ditugu jakiak prestatzeko moduak,
egarria asetzeko edariak,
kantatzeko doinuak,
eta komunikatzeko hitzak.
Desberdin dugu jaten eta edaten, kantatzen eta mintzatzen;
baina premia berdina dugu jateko, edateko, kantatzeko eta komunikatzeko.
Berdin asetzen gaitu janak,
gustatzen edanak,
gozatzen kantak eta dantzak,
eta betetzen solasak.
Gorputzaren kasuan azalak bezala,
bereizten gaitu, kulturarenean, axalak,
axaleko formak.
Premiak berdinak ditugu,
oinarrian, barru-barruan, berdinak baikara.
Izadian naturak bezalaxe,
gizadian kulturak aniztasun izugarria du;
eta aniztasun horrek,
harremanean, hartu eta emanen,
errespetuan eta bakean,
elkarren osagarri egiten gaitu
elkar aberasten gaitu.
Gu orain hemen gaude,
historiako eta unibertsoa une eta gune honetan:
udaberrian, Orion.
Eta orain eta hemen herri eder hau aberastu nahi dugu,
gure formetatik, aniztasunetik.
Baina garaian garaikoa behar du eta tokian tokikoa:
arbolak egurra, neguan elurra.
Orion, Euskal Herrian, euskara da jatorrizko hizkuntza;
munduko toki honetan, berotzen gaituen astroari eguzki esaten zaio,
bizia eman zigunari, ama.
Gutako batzuek ez dugu izango euskara ikasteko zoria,
baina gure seme-alabek ikasiko dute;
haiek jakingo dute zer den eguzkia, zer, ama.
Euskaraz, gaztelaniaz, arabieraz, portugesez, kitxuaz, woloferaz...
horixe esan nahi izan diogu Orioko herriari, denok batera. ■*



PUBLIZITATEA



Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

KORTABERRI
arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47



kutixi
kafetegia

Aritzaga 9 • ORIO • 943-13 15 17



libe
dietetika
elikadura aholkularitza

943-53 64 94
697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com
www.libegarmendia.com



Ordo elikatuz Bizi

Eusko gudariak, 35 • ORIO
(sarrera Arrantzale kaletik)



Lizaso
Dekorazioa

Eusko Gudari, 48 • ORIO • 943-83 07 84
itzilizaso@gmail.com



niko
taberna

Karta
Pintxo tradizionalak
Okindegia



Palota Kalea, 5 • 20810 Orio • Egin erreserba 943-53 61 27



MARJO
ILEAPAINDEGIA

Eusko Gudari, 8 behea • ORIO
943-13 47 29



narau
school & translations



www.narau-school.com

Eusko Gudari 29 - ORIO
943-83 11 16
648 97 64 70
info@narau-school.com



OINARRI PODOLOGIA ZENTROA

Arrantzale kalea, 63 behea
ORIO
943-57 53 61
oinarri@podologia-oinarri.com
www.podologia-oinarri.com

MENDIZABAL
AROTZTEGIA

Neurriko armairuak eta egurlanak

Altxerri bidea, Beti-Alai etxea • AIA-ORIO
943-83 11 75 • 645 70 84 91
mendi@arotzgi.net



Oreaka
fisioterapia

Eusko Gudari, 54 • 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa
Eskuzko terapia • Talka-uhinak
Masaje terapeutikoa • Osteopatia



INDO

Garraio frigorifikoa
Nazionala eta Nazioartekoa



kamarak



bilbideak



generoa



garraioak

Ubegun industriagunea, 4
AIA-ORIO
943-89 4024 • FAX-a: 943-13 01 44

Nola bizi izan zenuen Talai Mendi Trail lasterketa?



ARANTXA MANTEROLA

Antolakuntza taldean ibili naiz, eta egia esan, oso ondo moldatu gara. Lan gehiena Bittor Andresek egin du, bera ibili da batera eta bestera. Ikastolarekin aurreko edizioak antolatzen esperientzia handia pilatu zuen, eta asko erraztu ditu aurtengo lanak. Pozgarria izan zen plaza horrela ikustea, jendearekin eta bizi-bizi. Oso ona izan zen herritarren erantzuna. Zorionez, izurritearen egoerak ere lagundu zuen. Parte hartzaile modura, gustura geratu nintzen egindako lasterketarekin. Lehendik ere egina nuen Orioko lasterketa, baina aspaldian halakoetan parte hartu gabe nengoen izurriteagatik, eta gozatu egin nuen. Korrikalarion artean giro lagunkoia izan zen, eta elkarri animoak ere eman genizkion ibilbidean zehar.



OLAIA EIZAGIRRE

Gogo handia izan nuen lasterketa eguna iristeko, eta goizeko lehen orduan urduri ibili nintzen. Poza eman zidan irteera puntura hurreratu eta hango giroa ikusteak. Poztasun handiarekin eta urduritasunarekin abiatu nintzen korrika. Beldurra ematen zidan atera eta metro gutxira aldapan gora egin beharrak, ez nuen hasieratik betekada handiegia hartu nahi. Poliki-poliki, ibilbide osoan erritmo bera mantentzea lortu genuen bikotekideak eta biok, eta gozamena izan zen 14 kilometroak egitea. Bazter guztietan egon ziren ikusleak, eta haien oihuek asko bultzatu gintuzten. Antolaketa aldetik ere primerakoa izan zen. Aldapak, mendia, asfaltoa... Ibilbideari ez zitzaion ezer falta. Boluntario asko egon ziren bidegurutzetan, eta galtzeko beldurrik gabe egin genuen korrika.



ASIER COLINA

Egun borobila izan zen. Osasun krisian jarraitzen dugula kontuan izanik, luxua izan zen halako lasterketa batean parte hartu ahal izatea. Aspaldiko partez, lehiaketetan izan ohi den urduritasun puntua bizi izan nuen irteeran. Ikusleak ere primeran portatu ziren, eta eguraldia ere zoragarria izan zen. Pertsonalki, gustura geratu nintzen egindako lasterketarekin. Denbora konkretu bat nuen buruan, eta hori betetzera atera nintzen. Horregatik, 14 kilometroetan ez nuen inorekin hitz egin; nire inguruan ibili zirenak ere isilik joan ziren, marka edo postu jakin baten bila. Lehiatz gain, niretzat balio handia du lasterketak izan zuen kutsu herrikoia. Jende askorentzat eguna bera argi izpi bat izan zela ziur nago. ■■■

"Oso inportantea da burujabetza teknologikoa, euskarari behar duen garrantzia emateko"

JABIER ZABALETA ETA ITZIAR CORTES UDALHIZTEK PROIEKTUKO PARTE HARTZAILEAK

Elhuyarrek, Orioko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak UdalHiztek proiektu pilotua garatu dute elkarlanean, erakusteko txerta daitezkeela hizkuntza teknologiak udaletan eta administrazioko funtzionamenduan. Era berean, ahal den heinean euskara hutsez lan egiteko urratsak eman nahi izan ditu Orioko Udalak, edukiak euskaraz sortu eta hizkuntza teknologien bidez gaztelaniara itzultzeko. Proiektua izan dute hizpide Itziar Cortes (Zarautz, 1985) Elhuyarreko ingeniari eta Orioko bizilagunak eta Jabier Zabaleta (Oriu, 1962) Orioko Udaleko Euskara teknikariak.

Testua: **Aiora Larrañaga Solaberrieta**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Zertan datza UdalHiztek proiektua?
ITZIAR CORTES: Proiektuak erakutsi nahi du nola txertatu daitezkeen euskarazko hizkuntza teknologiak udaleko edo administrazioko egunerokoan. Horretarako proba pilotua egin dugu Orioko Udalean, ikusi nahi genuelako ea posible zen nagusiki euskaraz aritzen den udalean hizkuntza teknologien bidez beste hizkuntzak txertatzea, gaur egun ditugun aurrerapen teknologikoak erabilia. Kontuan hartu behar dugu azken urteetan asko garatu direla euskarazko hizkuntza teknologiak, eta horien aplikagarritasuna posible den aztertu dugu. Gainera, une honetan udalek badute tokiko lege bat euskaraz bakarrik lan egitea ahalbidetzen diena.

JABIER ZABALETA: Hizkuntza politikarako eskumenak udalenak dira gaur egun, lehen Eusko Jaurlaritzarenak baziren ere. Hau da, udal bakoitzak erabaki dezake hizkuntza arloan zer politika garatu nahi dituen. Orain aukera gehiago ditugu, eta udalak erabaki dezake euskara hutsez

lan egitea. Hain zuzen ere, gure helburua da ahal dugun heinean euskaraz lan egitea, baina inor bazterrean utzi gabe. Hizkuntza teknologiek ematen dute aukera guk euskaraz sortu dugun hori erdaraz jasotzeko.

Proiektu honetan parte hartzeko aurretik antzeman al zenituzten hainbat hutsune udaleko funtzionamenduan?

J.Z.: Bi hizkuntzetan lan egitea zailagoa da beti. Testuak sortu behar dira bi aldiriz; hasieran hizkuntza batean sortu behar da testua, eta horretan oinarrituta hasi behar da beste hizkuntzan lantzen. Gainera, oso adi egon behar da, bi testuak berdinarik izan daitezten. Horrek denbora asko eskatzen du, eta lanaren kalitatearen aurka egiten du. Horrez gain, udaletan beti izaten dira presaz landu beharreko konplexutasun handiko gaiak, eta bi hizkuntzetan lantzeak zaildu egiten du prozesua. Horregatik, gure helburua litzateke gaiak euskaraz lantzea, eta teknologiek egitea itzulpen lana. Dena dela, horretarako euskaraz oso ondo lan egin behar da: testuak oso ondo sortu behar dira, hitz aukeraketa





Jabier Zabaleta.

egokia eginda eta ondo puntuatuta. Hizkuntza aldetik aurrerapauso bat ematea eskatzen du, horrek zuzenean baldintzatuko duelako itzulpenaren kalitatea. Testu txar bat sartzen bada itzultzaile automatikoan, itzulpena kaskarra izango da.

Nola sortu zen Elhuyarren eta Orioko Udalaren elkarlanerako aukera?

I.C.: Gipuzkoako Foru Aldundiko dirulaguntza deialdi batera aurkeztu genuen proiektua, baina ez genuen lortu proba pilotua egiteko udalik. Orioko Udalarekin beste gai batzuk lantzen ari ginen, eta proposatu genien proiektuan parte hartzea, ikusten genuelako beharrezko baldintzak betetzen zituela. Iruditzen zitzaigun udaleko egoera soziolinguistikoa euskalduna zela eta lan asko egiten zela euskaraz, baina era berean, uste genuen egon zitezkeela gabezia batzuk hizkuntza teknologien bidez konpondu zitezkeenak. Orioko Udala proiektuan parte hartzeko prest agertu zen hasieratik, eta eskertu nahi diegu izan duten jarrera. Hasiera batean, dirulaguntza hori esperimentaziorako zen, eta asmoa da elkarlan honetatik sortutakoa beste udal batzuetan aplikatzen hastea.

Zein izan zen proiektua abiatzeko aurreneko urratsa?

I.C.: Hasieran elkarrizketa saioak egin genituen Orioko Udalaren egoera ezagutzeko eta sail bakoitzean zein hizkuntzatan eta nola lan egiten

zuten jakiteko. Saio informatibo bat ere egin genuen langileei azaltzeko zer aukera eskaintzen zituzten hizkuntza teknologiek.

Azterketa egin ondoren zer egin duzue?

I.C.: Bertako errealitatea aztertuta, ohartu ginen Orioko Udalak zituen beharrak asetzeko tresna egokienak itzulpen automatikoa eta hizketa ezagutzarako tresna zirela, eta horiekin lanean hasi ginen, ikusteko zein arlotan aplikatu genitzakeen. Adibidez, Jabierrek sortzen baditu webgunerako testu gehienak, berari jarriko diogu itzultzaile automatikoa, testuak egokiago egin ditzan. Webgunean albisteak euskaraz bakarrik argitaratu nahi baditugu, botoi bat integratuko dugu webgunean, nahi duenak testu horiek automatikoki gaztelaniaz irakur ditzan. Hainbat departamentutan txostenak elebitan sortu behar badituzte, berriz, horiei ere itzultzaile automatikoa eskainiko diegu txosten horiek itzultzeko. Horrez gain, udalbatzarretako bideoak eta zuzenekoak azpigitulatzeko ere egin ditugu probak, ahotsaren ezagutza teknologiararen bidez.

Erraza izan al da tresna horiek udalaren eguneroko martxan integratzea?

J.Z.: Orain arte bai. Webgunean itzultzaile automatikoaren botoia jartzea, esaterako, uste genuena baino errazagoa izan zen; webgunea kudeatzen duen enpresari esan eta bi-hiru egunetan eginda zuten. Gainontzean, orain hasiko da teknologia horiek udaleko martxan integratzeko lana. Diagnosi bat egin genuen teknologia horiek udalean nola erabili ditzakegun ezagutzeko, eta horretan oinarrituta joango gara pixkanaka aplikatzen, arloka banatuta. Seguruenik, hasieran euskara arloko ikastaro bat egin beharko dugu, itzultzaileak ondo funtziona dezan, euskarazko testuak oso ondo idatziak egon behar dutelako. Beraz, testugintzan eta euskararen erabileran trebatu beharko dute langileek, euskaraz hobeto lan egiteko. Udalean oso langile prestatuak ditugu arlo horretan, eta euskaraz lan egiteko ohitura ere badute, baina kalitatean badugu salto bat emateko. Izan ere, Udaleko lana azkar egin behar izaten da askotan, eta horrek testuen kalitatean eragina izaten du. Aurrerantzean, bi hizkuntzetan testuak sortu beharko ez ditugunez, denbora gehiago izango dugu euskarazko testuetan kalitatearen irizpidea sendotzeko.

Egin dituzue lehen lanak teknologia horiekin. Zer moduzkoa izan da erantzuna?

I.C.: Alde batetik, itzulpen automatikoa webgunean txertatu da eta jendearen erantzuna

ona izan da. Testuak euskaraz argitaratzen dituzte eta erabiltzaileak hautatu behar du botoian sakatu eta testu bera erdaraz irakurtzea. Bestetik, hizketaren ezagutzarekin hainbat proba egin ditugu. Teknologia hori oso azkar garatzen ari da, eta garatzen ari den bitartean aritu gara probak egiten. Udalbatzarretako bideoak azpigitulatzeko baliagarria da tresna, eta etorkizunean helburua izango da zuzenekoetan automatikoki azpigitulatu eta zuzeneko itzulpena egin dezakeen tresna sortzea. Azken helburu hori lortzeko askoz gehiago garatu behar da teknologia, baina bide onetik goaz.

J.Z.: Oraindik hobetzeko aukera du tresnak, eta oso azkar doala konturatu gara, proiektuaren bizidunboran ere asko hobetu delako. Gainera, teknologia horietan oso garrantzitsua da zuzentasuna. Udalbatzarretan idazkariak hitz egiten duenean, esaterako, transkripzioa oso ona izaten da, hark euskara batuan eta oso ahoskera onarekin hitz egiten duelako, baina udalbatzarrean gertatzen diren eztabaidetan lagunarteko hizkera edo hizkera arrunta erabiltzen bada, emaitza ez da horren ona izaten. Orandik badu zer hobetua teknologia horrek, baina seguru nago lortuko dugula, hizkuntza handietan dagoeneko oso ondo funtzionatzen duelako bat-bateko transkripzioak, eta gurera ere iritsiko da.

I.C.: Gure itzultzaile automatikoa programatuta dago ondo egindako esaldiak itzultzeko, eta ahos esaten ditugun esaldiak ez direnez beti guztiz zuzenak izaten, emaitza ez da nahi genukeena. Gainera, transkribapena sortzean hitz batzuk ez baditu ondo ulertzen, itzulpena ere kaskarragoa izango da.

Zer eman diezaioke teknologiak euskarari?

I.C.: Euskara hizkuntza txikia izanagatik, hizkuntza teknologietan indar handia du. Tresna oso onak daude garatuta arlo horretan, eta garrantzitsua da gizarteak jakitea denen eskura daudela eta aplikatzeko modukoak direla. Orokorrean jendeari zaila egiten zaio teknologia horiek ulertzea, baina gure lana da zertarako erabil daitezkeen azaltzea. Hori da erronka. Liluragarriak dira teknologia horiek, baina ondo erabili behar dira euskararen alde egiteko.

J.Z.: Teknologiak bide berriak ireki diezazkiok euskarari, baina zenbait sektore euskalzaletan zalantzan jartzen dira teknologia horiek ekar ditzaketen onurak. Zenbaitek uste dute erdaraz funtzionatzen jarraituko dutela askok, eta itzulpena makinak egingo duela. Guk uste dugu tresnak neutroak direla, eta norberak egiten dugun



Itziar Cortes.

erabilerak markatzen duela joera. Guk, esaterako, erabili nahi ditugu euskaraz gehiago eta hobeto lan egiteko, eta horretan jarri ditugu indarrak. Nik neuk uste dut jarrera antzua dela horrelako teknologiei muzin egitea, dagoeneko beste hizkuntzetan aplikatzen ari direlako eta euskara oso ondo poszionatua dagoelako arlo horretan. Teknologia horiek ez dira desagertuko, eta ezinbestekoa da horiek egoki aplikatzeko lan egitea. Oraingo honetan administrazio publikoan garatu da proiektua, baina edozein erakunde edo esparrutan erabil daitezke hizkuntza teknologiak. Tresna horiek ondo garatzen direnean, adibidez, erabil daitezke ikastolako guraso bilerak euskara hutsean egiteko.

Aipatu duzue euskara oso ondo poszionatuta dagoela hizkuntza teknologietan. Zergatik?

I.C.: Erraldoi teknologikoen esaten dute hizkuntza guztien alde egiten dutela lan, baina argi dago beraiek sortzen dituzten teknologiek euskarari ez dietela ematen Elhuyarren ematen diogun garrantzia. Oso garrantzitsua da Euskal Herriko teknologia enpresek burujabetza teknologikoa izatea, euskarari emateko behar duen garrantzia. Euskara oso hizkuntza txikia da, baina Euskal Herrian euskararen inguruan garatzen ari garen teknologiak erreferentetzat dituzte beste hainbat hizkuntzak txikik, eta Wikipedian ere hizkuntza gutxituen artean artikulua gehien dituen hizkuntza da gurea. Aro digitalean murgilduta gaude, eta



ezinbestekoa da hizkuntza teknologietan aurrerapausoak egitea, euskarak presentzia eta indarra izatea nahi badugu. Bestela, gure seme-alabek etorkizunean, gaur egiten dugun bezala, smartphoneari edo bozgorailu adimendunari gaztelaniaz edo ingelesez hitz egin beharko diete. Guk nahi dugu tresna horiek euskaraz jakitea eta euskaraz erantzutea, eta horretarako dihardugu euskaraz ikertzen eta hizkuntza teknologia garatzen; bestela, alboratuta geratuko da euskara, eta gure ondorengoek beste hizkuntzak erabili beharko dituzte digitalki komunikatzeko.

Bozgorailu adimendua aipatu duzu. Etorkizunean euskaraz dakien bozgorailu adimendurik egongo dela uste al duzu?

I.C.: Bozgorailu adimendua adibide gisa jarri dut, gaur egun etxe askotan daudelako eta ezinbestean gaztelaniaz, frantsesez edo ingelesez hitz egin behar zaielako. Gaur-gaurkoz ez dago bozgorailu adimendurik euskaraz dakienik, eta horiek sortu ahal izateko nahitaezkoa da aurretik beste hainbat teknologia garatzea: ahotsa ondo transkribatzen duen teknologia, ahotsak ondo sortzen dituen tresna, itzulpen automatikorako sistema eta informazioa euskaraz prozesatzeaz gain, euskaraz modu naturalean erantzuteko gai den teknologia.

Euskarak baditu euskalkiak eta eskualde batetik bestera asko aldatu daiteke hizkera. Hori erronka al da

hizkuntza teknologientzat, batez ere ahotsa identifikatzen dutenentzat?

I.C.: Bai, erronka da, baina badugu euskara batua ere, eta guk, araututako euskara estandarrean oinarrituta egiten dugu lan beti. Adibidez, guk azpituak sortzen dituen teknologia garatu dugu euskara baturako, baina norbaitek euskalkian hitz egiten badu, sistema euskara batuan idazten saiatzen da. Hizkuntza handiagoen kasuan, hizkuntza teknologiek badituzte tokian tokiko adierak identifikatzeko mekanismoak, baina horretarako aurretik lanketa egin behar izaten da. Guk, esaterako, euskara eta gaztelaniaren arteko itzultzaile automatikoa sortzeko bederatzi milioi esaldi bikote sortu behar izan ditugu. Ahotsa errekonozitzeko tresna sortzeko, berriz, behar dira beste hainbeste ahozko eta idatzizko esaldi.

Euskara teknikari moduan, teknologia berrien bidez zer lortzea gustatuko litzaizuke zuri, Jabier?

J.Z.: Nahi nuke udalak euskara hutsez funtzionatzea, baina inor bazterrean utzi gabe, hau da, ez dakienak aukera izatea edukiak bere hizkuntzan jasotzeko eta udalaren jarduna segitu ahal izateko. Bide horretan, hizkuntza teknologia erabili nahi nituzke kalitatea eta eraginkortasuna irabazteko, euskaraz lan eginez. Udalez ari naiz gure proiektua arlo horretan garatu delako, baina bestelako erakundeek eta elkarteek ere bide bera jarraitu dezakete. ■■■



Hornitu goxo-goxo zure etxebizitza eroso egoteko

Prezio paregabe batetik, 2500€...egongela, logela eta sofa (koltxoia barne)



Estrata 3. Pab. Errasti (Aginaga Auzoa) 20170 USURBIL
 Tel./FAX-a: 943-36 93 59 · Mugikorra: 676 35 56 35
 mueblesaguinaga@mueblesaguinaga.com

NON DAGO KARKARA?



Karkara pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutatuta aurkitu behar da, eta erantzuna *karkara@karkara.eus* e-posta helbidera bidali ekainaren 21a baino lehen. **Saria:** Iban Egigurenen eskutik argazki saio bat. Karkarako Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.



KARKARAKO bazkide Igon Lertxundik irabazi du Satotxa sagardotegian bi lagunentzako otordua.



ORIOTAR

bat gehiago



**BATU KARKARAREN PROIEKTURA,
BATZEN GAITUENA GARA!**

Egin zure ekarpena: bazkide@ukt.eus - 943-81 38 41



Txikitako ametsa betetzen

JULEN AGIRRE, ENEKO LIZASO, LAUTARO GARCIA FUTBOLARIAK

Gure hiru ikasle ohi beren txikitako ametsa betetzen ari dira:

futbolari izatea klub profesional batean. Julen Agirre, Eneko Lizaso eta Lautaro Garcia dira.

Noiz sartu zinen taldean?

JULEN AGIRRE: Orain lau urte Eibar taldean hasi nintzen, kadete mailan.

LAUTARO GARCIA: 2020ko abuztuaren 10ean izan nuen lehen saioa, ez zait ahaztuko.

ENEKO LIZASO: DBH1ean hasi nintzen, hau da, 12 urte besterik ez nituenean.

Zer da gauzarik onena horrelako talde batean zaudenean?

J.A.: Zure adineko jokalaririk onenekin zaudela eta asko ikasi eta hobetzen duzula.

L.G.: Jende asko dagoela zure inguruan laguntzeko prest.

E.L.: Maila handiko ekipoan egoteak pribilegio handiak ematen dizkizu. Gainera, jende berria ezagutzen duzu, eta beraiekin era guztietako bizipenak izaten dituzu.

Eta txarrena?

J.A.: Denbora gutxi gelditzen zaigu ikasteko eta aisiarako.

L.G.: Sentitzen duzun presioa.

E.L.: Kentzen digun denbora da, gure lagunekin edota bestelako gauzak egiteko, baina Realean sartzen zarenean garbi eduki behar duzu sakrifizio hori egin behar duzula.

Nola uztartzen dituzu futbola eta ikasketak?

J.A.: Ez da batere erraza.



L.G.: Entrenatzera joan aurretik saiatzen naiz lanak egiten.

E.L.: Ondo antolatu behar duzu biak eguneratuta eramateko. Garrantzitsua da egun eta denbora librea aprobetxatzea.

Futboleko bizitako unerik politena?

J.A.: Ez dut une berezirik izan... ez onerako, ez txarrerako.

L.G.: Aste Santu batzuetan Oriokorekin Zarauzko txapelketa irabazi genuen orain nire taldea denaren kontra.

E.L.: Amak Realean hartu nindutela esan zidanean.

Unerik tristeena aurten izan da, denboraldi hasieran ekipoak ez zituelako partidak irabazten eta aldageletan lagunak burumakur eta triste ikusten nituelako.

Hirurak Oriokotik atera zarete. Zein izan zen aldaketarik handiena?

J.A.: Lehiakortasuna eta maila hobea lortzea.

L.g.: Intentsitate handia eskatzen du.

E.L.: Aldaketa handiena instalakuntzak izan ziren. Baita bi ekipazio edukitzea, eta taxian joatea entrenamenduetara.

Pribilegiatua sentitzen nai. ■■■



Donostiako olatu artifiziala

Donostiako Udalak Antondegin olatu artifiziala jartzeko proiektua abiarazi du, eta horrek polemika sortu du. Nire iritziz, ez da beharrezkoa olatu artifizial bat jartzea.

Inguruneari dagokionez, Eguzki talde ekologistak aipatu du ez dela ezinbestekoa hamar hektarea lur okupatzea; izan ere, olatu artifiziala proiektatu den lekutik bi kilometrotara Zurriola hondartza kokatzen da. Bestetik, enpresak erabili beharreko ur kopuru eta energia kantitate handia berrerabiltzea erabaki arren, kantitatea neurritz gainezko izango da.

Horrez gain, Itsas Enara eta Seo taldeek ohartarazi dute babes bereziko erregimenean dauden hegazti asko arriskuan jar ditzaketela. Ekonomiari begira, diru gastu handia litzateke. Gainera, olatu artifizialaz gain, aisirako guneak egitea erabaki dute, urte osoan erabiltzeko, adibidez, golf pista bat. Zure ustez, beharrezkoa da hainbeste diru erabiltzea, bizi dugun egoera zein den jakinda?. Nire ustez, itsasoa eta hondartzak hain hurbil izanik, aisialdi eskaintza hori estalita dago gure probintzian. Bestalde, proiektuak eragin negatiboa izango luke eremuko ekosisteman, eta bizi dugun egoera pandemikoak osasun arloa, ikerketena eta ingurumena hobetzea eta behartsuenei laguntzea eskatzen duela uste dut. ■■■



Oriophile baten oroitzapenak eta digresioak

1968tik aurrera, Martin Fowlesek hogeita hamar urtetik gora egin zituen, lagunekin eta familiarekin batera, udak Orioko Kanpinean pasatzen. Herriko zenbait ezagun egingo zaion lagun ingelesak argazki zaharrak eta oroitzapenak elkarbanatu ditu KARKARArekin, memoria ariketa interesgarri bezain eskuzabalean.
Testua: **Iñigo Gaiton**. Argazkiak: **Martin Fowlesen artxiboa**.

azko uztailean, Orioko lehen surflariei buruzko erreportajea plazaratu zuen KARKARAK. Lau herritar elkarrizketatu ziren testua osatzeko, Ramon Esnal *Etxeberri* haien artean. Hark azaldu zuenez, 1960eko hamarkadan ingeles taldetxo bat etorri zen kanpinera, “Martin Fowles eta konpainia” bere hitzetan, eta haiei erositako oholarekin hasi zen surf egiten.

Arrastoari segika, Fowlesen helbide elektronikoa lortu zuen testu honen sinatzaileak, eta mezua jarri zion iazko abenduan, garai zaharretako argazkien eta istorioen gaineko interesa agertuz. Kazetariak egindako kontsulta serio hartu zuen ingelesak, eta hiruzpalau hilabeteko ekinaldiaren ostean, Oriori lotutako oroitzapen eta foto zaharrak 50 orrialdetik gorako dokumentuan bildu zituen. Material horretako zertzeladekin osatu da erreportaje hau.

Oriophile baten memoriak

Lehen orrian, Fowlesek aurkezpen hau egiten dio orri sortari: “Adinean sartutako surflari, *Oriophile*, senar, aita eta aire zabaleko jardueren maitale baten oroitzapenak eta digresioak”. Termino jostakari eta, aldi berean, esanahiz betearekin biltzen du hondartza inguruan, kanpinean eta herriko jendearekin bizitako guztia: *Oriophile*, hau da, oriozale.

1968ko udan izan zen lehen aldiz hemen, gaztea orduan, bost lagunekin batera. Haietako batek Portugalen pasatu zuen aurreko uda, eta itzulerako bidaian Oriorekin egin zuen topo, ustekabea. Donostiatik hurbil zegoen herri arrantzale batean izan zela azaldu zien lagun surflariei, *where there was a super beach break and no people!* Toki lasaia izatez gain, olatu onak bakar-bakarrik, uretan inor gabe, hausten ziren hondartza paregabea zuela herrixkak, alegia.

Entzundakoarekin liluratuta, hurrengo udan 18 orduko bidaia egin zuten Orioraino, eta ailegatu ziren uneak ez du bazterrean uztekorik: “Zeramika fabrikaren errebuelta hartutakoan, ehundaka lagun zegoen errepidearen bazterretan, autoei geratzeko eginez eta sarrera kobratuz. Iskanbila hari guztiari ez genion inongo zentzurik hartzen, eta “Camping” errepikatzen genuen behin eta berriz, ordaindu gabe pasatzeko esperantzarekin. Bidaia luzearen ondoren, hondartzara ahalik eta azkarren iristea zen gure nahi bakarra”.

Oriok eta Oxfordek aulki mugikorrek estropadak jokatu zituzten erriotan 1968ko uztailearen 18an, eta hori zen zalaparta haren guztiaren arrazoia. Esperotako herri lasaiaren aztarrenik ez zuten



Antilla hondartza eta itsasadarra, oraindik autopistaren zubirik gabe.

Maria, Martinen bikotekidea, Orioko olatuez gozaten.



aurkituko bisitari gazteek egun hartan.

Olatu onak eta askatasuna

Fowlesen laguna ez zebilen oker, eta gazte kuadrillak aurkitu zuen desiratutakoa: “Antilla hondartzan olatu onak izaten ziren maiz, eta itsasaldia oso handia zenean ibaira ere jotzen genuen surf egitera. Errioko urak izaten zuen kiratsa gogoan dut oraindik”. Marea beheara egiten ari zela hartzen zituzten olatuak erriotan, bestela ezinezkoa zelako olatua bukatutakoan pikora arraunean itzultzea, ur korronteen indarragatik. Behin, olatu luze bat hartu eta gero, ura gora egiten sumatu zuen Fowlesek, eta korrontearen alde jarraitu zuen arraunean surf taularekin, herriraino. “Moilan atera nintzen uretatik, eta zerbeza bat hartu nuen Bordatxon. Gero, oinez itzuli nintzen kanpinera, autoa hartu eta plazara oholen bila itzultzeko”.

Garai hartan ez zen surflaririk hemen inguruan, eta bisitari ailegatu berriak sorosleekin tira-biraren bat izatera iritsi ziren. “Bandera gorria askotan jartzen zuten, ez ziguten uretara sartzen uzten. Hitz



Martin, olatuan irristaka. Atzean, Getariako arratoia.

Martin eta lagun bat, kanpinean zerbeza bana edaten.

solteak egiten genizkien frantsesez, eskuekin keinuak, Ingalaterran halako olatuetan ibiltzera ohituta geundela azaltzeko”. Gorputz Hezkuntzako ikasketak egindakoa zen Fowles, eta lehen sorospenen gaineko ezagutzak barneratuta zituen unibertsitate garaitik. “*Guarda Playas*-ek onartu egin gintuzten azkenean, eta elkarren lagunak egin ginen. Surf oholak uzten genizkien tarteka. Etxera alde egin aurretik, sorosle bati saldu nion nire taula, eta nire lagunek ere gauza bera egin zuten”.

Lehen bidaia hura primerako esperientzia izan zen surflari gazteentzat, eta hurrengo urtean itzuli egin ziren. “Uretan ez zen inor ibiltzen, eta Oriok askatasunaz gozatzeko aukera paregabera eskaintzen zigun”. Nazioarteko aulki mugikorreko estropadak izan ziren 1969an ere, eta herriko giroaz eta festaz bete-betean gozatu zuten bigarren abenturan: “Oxford eta Cambridge izan ziren herrian. Hura giroa, hura gaua! Bordatxo zen gustukoen genuen taberna, eta han ibili ginen. Atzerritar gutxi izaten zen orduan, eta



gu ere arraunlariak ginela pentsatuko zuen herriko jendeak”.

“Patatas Porkidoor!”

“1970eko hamarraldian, bertako jendea eguraldi eguzkitsu eta beroarekin bakarrik izaten zen hondartzan. Kontzeptu berria zen hori guretzat, Ingalaterran alderantziz gertatzen zelako. Hasierako urte haietan ez nuke esango Antilla inoiz beteta ikusi genuenik. Dena den, jende pixka bat izango zen hondarretan, patata eta barkillo saltzailea han ibiltzen zelako txanponak irabazten”.

Fowlesen testuak umore izpi ugari ditu, eta dioenez, saltzaileak “Patatas Porkidoor!” ohiu egiten zuen hondarretan batera eta bestera zebilen bitartean. “Urte luzez ikusi genuen hondartzan, eta esaten zuena zehazki ulertu gabe geratu ginen”. Hizkuntza desberdinen arteko talkan galtzen eta irabazten diren gauzen artean urtuko ziren, beste askoren artean, “¡Patatas fritas y barquillos!” marruak, baina ingelesak ondo gogoan ditu oraindik.

Hondartzak gaez ere eskaintzen zien gozamina: “Gitarrak hartu eta kantuan jarduten genuen, su txikiaren bueltan. Oriotarrik ez zen izaten inguruan gaez, bisitarion ohitura zela zirudien. Guardia Zibila sarritan hurreratzen zitzaigun, eta behin, gitarra eskatu eta



Eskuinaldetik bigarrena da Martin, etxekoekin eta lagunekin batera, Txinpartan.

Surflari ingelesak erriotan, olatu gainean.



Martin harmonikarekin, Txinpartan egindako azken kontzertuan.

Urizkinan, soroslearekin eta beste bisitari batekin.

flamenkoa jotzeari ekin zion polizia haietako batek”.

Surfik ez zen egunetarako aukera desberdinak zituzten, gozagarriak denak: igerian egin, piraguekin txipiroitara atera, urpean arrainak harrapatu... “Anarri aldean ibiltzen ginen gehien. Arrain asko harrapatu genuen behin, eta sorosleak esan zigun hondartzako txiringito batera eramango zuela jeneroa, han erre eta iluntzean denon artean jateko”.

Etxean zutenarekin konparatuta, beste mundu bat ezagutzeko eta gozatzeko aukera izan zuten ingelesek hemen. Oriotarrentzat ere, ziurrenik, aparteko mundu batekoak izango ziren haien ohiturak. “Herriko lagun bati oportetara nora joaten ote zen galdetu nion behin. Sekulan oportrik ez zuela izan esan zidan; Orion behar zuen guztia zuela-eta, Bilbo baino urrutirago inoiz ez zela joan”. Herritarrek ere harritu egiten omen ziren haiek korrokoiak jaten ikustean: “Primerakoak ziren baratzeri pixka batekin erreta”.

Txiringitoak, kanpina, festa

Txiringitoetako istorio eta anekdota ugari ditu Fowlesek oroitzapenen artean. Hogeita hamar urte egin zituen Oriora etortzen, eta tarte zabal horretan, bertako jendearekin — oriotarrekin, kanpinetako bisitari euskaldunekin— tratu handia izan zuen, zenbaitekin lagun min bihurtzeraino. Behin baino gehiagotan azpimarratzen ditu euskaldun jendearen eskuzabaltasuna eta gertutasuna. “Txinpartan asko egoten ginen. Ikaragarria zen surf egin eta gero hantxe, The Doorsen abestiekin zerbeza bat edatea, bainujantzi bustia kendu ere egin gabe, hurrengo egunean ordaintzen uzten zigutelako. Harrigarria egiten zitzaigun konfiantza hori. Ez zen ohikoa guretzat”.

Boga Bogakoekin harreman estua egin zuten. “Jaten bukatutakoan puruak eta alkohol botilak jartzen zizkiguten mahai gainean. Ordaindu aurretik, erretakoak eta edandakoak zenbat ziren galdetzen ziguten. Gure hitzean sinisten zuten, eta harreman mota horrek asko esan nahi zuen guretzat. Jatetxeko kamisetak ematen zizkiguten oporrak bukatutakoan”. Gogoan du Guxabin lo egin



zuten gaua ere: “Kanpinean tokirik gabe geratu ginen behin, eta taberna itxitakoan han lo egiteko esan ziguten nagusiek”.

Kanpinean izandako bizipenek toki zabala hartzen dute Fowlesen orrietan. Besteak beste, gaur egunera arte irauten duten harremanak egin zituzten han berak eta familiako kideek. “Abegikortasun handiko jendea topatu genuen hasieratik. Euskaldunek edozein aitzakia nahikoa zuten festatxo bat antolatzeke, eta surfaz gain, horrek ere asko erakartzen gintuen. Urteek aurrera eginda, jada seme-alabak genituela, gogoan dut kanpinean antolatzen genuen Umeen Eguna. Primerakoa zen”.

Modernizazioa, agurra

“Txiringito haiek bota izana hondartzaren modernizazioaren ondorio gogorrenetako bat izan zen. Orain dauden hiru tabernajattetxeak eraiki zirenean, itxura berekoak denak, dena aldatu zen guretzat”.

2001ean bukatu zen Fowlesen familiak Oriorekin urtero zuen zitak, gerora bisita bakanen bat edo beste egin izan duten arren. “Hondartza ingurua asko aldatu zen urte gutxian, eta eskoilera berriaren ondorioz olatuen kalitatea asko jaitsi zen”. Txinpartan egindako azken kontzertuarekin agurtu zuten 1968an aurkitutako paradisu zatia. ■■■■

Eguzkia Getariako arratoiaren atzean ezkutatzen.

**ORIOK SURFAZ ETA
ASKATASUNAZ
GOZATZEKO AUKERA
ESKAITZEN ZIEN
INGELES GAZTEEI**

**BESTE MUNDU BAT
EZAGUTZEKO ETA
GOZATZEKO AUKERA
IZAN ZUTEN
INGELESEK ORION**

PUBLIZITATEA

PAKO IMAZ

pertsianak

PERTSIANAK
aluminioa
motorrak
automatismoak
konponketak

600 70 52 27 · 943-13 29 01
pakoimaz@hotmail.com · ORIO

Portu
Ertegia - Jatetxea

Kazolitatik, baserriko oilaskoa,
parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g · AIA
943-89 44 34

Sagasti
LEIHOAK

Tel.: 943-13 00 77 - Fax 943-53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Eusko Gudari, 7
20810 Orio

Kalitatezko materialak
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

Roberto Sagasti

www.sagastileihoak.com

BODEGON

Sarasua

info@bodegonsarasua.es | www.bodegonsarasua.com | Erreserbak: 943-83 00 05

Seguros Bilbao

Santi Barranco
Orioko Ordezkarria

Endaia Enparantza, 1 · ORIO · sbarranco@segurosbilbao.com
943-11 16 00 · 688 71 48 69

Sinergia
fisioterapia eta ikerkuntza

Ibai ondo, 1 behea · ORIO
943-13 05 77 · 685 71 85 95
sinergiafisioterapia.com

• **Lesioak:** bihurdurak, tendinitisiak, zaintiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaixotasunak haur eta helduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekupeazioa.

• **Tratamenduak:** terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesoaping-a, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresioa (GAH), REDCORD.

ORIO GARA

Orioko Herri Ikastola

Abeslari kalea, 8
943-83 47 04
Fax-a: 943-13 09 38
orio@ikastola.eus
www.oriokoikastola.eus

Jarri zure iragarkia

KARKARAN

943-83 15 27

SU KIA
TABERNA · JATETXEA

Eguneko menua
Asteburuetakoa
Oilaskoak eramateko
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Terraza ederra
(alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, behea 1
ORIO · 943-89 21 29

Zaragueta IPI
HERRI ESKOLA 2-16

943-89 92 43
012137aa@hezkuntza.net

Beste istorio bat



ELI HUEGUN

Itxaropenak argitu du eguna gaurkoan; berria dator eguna, aurrekoak ez bezalakoa. Amak (ziurrenik) pijamatxoa jantzi dio, txuria eta marroia, marraduna, goxo-goxoa. Agian jaio zenean norbaitek egindako oparia da. Amaren lagunek, agian. Badu horren itxura.

Ateak zabalik dira gaur. Esaten dute ezin dela langarik jarri basoan, baina gezurra da, gurean bai baitaudelako. Batzuetan, baita itsasoan ere. Edo itsasoa bera bihurtzen dute ataka, norberaren trebezia bihurtuz horiek irekitzeko giltza, bideojokoetan bezala. Baina hemen, arnasa amaitzean partida ez da berriz hasten.

Esperantzaz begiratu diete ate irekiei milaka pertsonak, diplomazia faltsuaren tranpan eroriz, nahi gabe, partida ankerraren fitxa bihurtuz. Bera ere hara daramate, amaren besoetan, baina ez oinez zelai berdean.

Itotzeko modu bat baino gehiago daudela eta ez zaio beste biderik geratu, bere umetxoa hartu eta arnasa hartzeko sartu da uretan, eromenaren erdian. Eta orduan heldu da gaua, ilun-iluna. Mugitu ezina, aurrera egin ezina, lortu ezina.

Iritsi da erreskatea eta umetxoari argazkia atera diote, bere pijamatxoarekin. Buruan txapela darama eta eskuetan eskularruak. Oinak ez zaizkio ikusten, ur azpian dauzka. Blai dago, aurpegia eta azala zuri-zuri dauzka eta uretatik atera duen guardia zibilak esan du ez zela mugitzen.

Argazkiak barrena lehertzen du, lotsa ematen du, ezina, etsipena sentiarazten ditu. Ez dakigu nola izena duen txikiak, Endurance agian, izana izenari eutsiz. Izan ere, ez du itsasoak jan. Endurance ez da Aylan izan, Aylan Kurdi.

Salbu da, baina itsasotik. Momentuz. Orain beste bide bat hasiko da. Argazkikoak baditu gurasoak, baina argazkirik atera ez dizkietenetik askok, ez. Edo ez herrialde berean, behintzat. Eta hori izango da askorentzat diferentzia, hor markatuko dute irudia mingarri izan edo mehatxu modura ulertzearen marra. Ez giza eskubideen subjektu modura ulertzen dituztelako, baizik eta norbaiten zerbait direlako.

Askori mena deituko diete, adjektibo bat bailitzan, bestela biziraun ezineko modu bat beharrean. Edo beno, agian ez, agian jatorriagatik jarritako hesiak baino ez dituzte ireki beharko, baina hori beste istorio bat da, ez? ■■■

**ARGAZKIAK BARRENA
LEHERTZEN DU, LOTSA
EMATEN DU, EZINA,
ETSIPENA
SENTIARAZTEN DITU.**

Olatu artifizialik ez Donostian!

Donostiako Udalak olatu artifizialen instalazio bat eraikitzeko asmoa du Martutene auzoko Antondegi gainean, itsasotik lau kilometro eskasera. Instalazioak ondorio kaltegarriak izango lituzke bai ingurumenarentzat bai Gipuzkoako surflariantzat, eta zazpi elkarte naturazalek eta hainbat surflarik Antondegi Berdea – Olatuak Itsasoan kolektiboa sortu dute proiektua geldiarazteko.

Arrazoi ugari eta sendoak eman dituzte (www.antondegiberdea.eus), baina labur esanda: proiektu honek ez dio surf komunitatearen eskaera bati erantzuten, enpresa batek sustatzen du eta

enpresak badauka antzeko azpiegitura bat Aizarnazabalen.

Antondegi Donostiako gerriko berdean dago. Azeriak, azkonarrak, katajinetak, katagorriak eta gardulak dabilta bertan, eta 109 hegazti espezie, hala nola galzorian dagoen miru gorria. Han sei futbol zelairen tamainako instalazio bat eraikitzea, harako bidean beste bi hektarea porlan sartzea, autoen joan-etorria eta abar, ingurune osoa hondatzea litzateke.

Instalazio horiek sarrera garestia dute, eta surfaren artifizializazioa sustatzen dute, surfak naturarekin daukan lotura eta surfaren balioak eta kultura desitxuratuz. Gainera,

bertan surf egiten ikastea errazagoa denez, surflarien masifikazioa areagotzen dute gertuko hondartzetan. Guztiok dugu surf egiteko eskubidea,

**ITSASOAREN
ALDAMENEAN OLATU
ARTIFIZIALA SORTZEA
ZENTZUGABEA DA
ERABAT**

HAUXE BAI JENEROA!





Donostiako Antondegí landa eremua.

noski, baina mugatuak dira hondartzak, eta nahikoa arazoekin bagabiltza lehendik ere. Zer sartu nahi gaituzte, *igerilekuak egin-surflari gehiago sortu-igerileku gehiago egin sorgin-gurpil ero batean?*

Bestalde, esan dezagun argi: itsasoaren aldamenean olatu artifizialak sortzea zentzugabea

da erabat. Are gehiago, klima larrialdi eta trantsizio energetiko garaiotan.

Horregatik guztiagatik, Donostiako Udalarari eskatzen diogu, mesedez, olatu artifizialik ez egiteko Donostian. Eta garaiz gabiltza! Donibane Lohizunerako aurreikusita zegoen enpresa beraren antzeko proiektu bat geldiaraztea lortu dute duela gutxi, eta aurretik Katalunian eta Malagan ere geldiarazi zituzten.

Horregatik, mesedez, Orioko eta Aiako herritar guztiei eskatu nahi dizuegu proiektu hau gelditzearen alde sinatzea. Mesedez, sinatu: www.change.org/antondegiberdea. ■■■

NIRE HONETAN



LEIRE MARTIJA

Hor dago koska

Orain dela egun gutxi, aitari gurpildun aulki elektrikoa ekarri diogu. Bada denbora eskean geundela, baina gure beldur eta ezjakintasunaren aurrean, gaia albo batera utzi genuen eta pixkanaka atzeratzen joan zen, eguna iritsi den arte.

Orain arte taka-taka zuen bere bidai guztietako lagun, etxetik urrun ibiltzen ez bazen ere, harekin sentitzen zuen segurtasun eta konfiantza osoa. Konfiantza etxetik hurbil egoteko, lehen ibiltzen zen txokoetara joatera ez baitzen ausartzen. Iruditzen zaigu nagikeria edota taka-takarekin nekatu eta itzultzen pasako zukeen denbora luze horren ondorioz izan zitekeela.

Aulki elektriko honek azken urteetan izan ez duen autonomia emango diola uste dugu neurri batean behintzat, baina bidean baditu hainbat oztopo ere. Inoiz ez naiz jabetu etxetik irten eta joan nahi dudan tokira iristeko zenbat koska gainditu behar ditudan. Niretzat ikusiezinak izan dira oraintsu arte, baina oztopo handiak izan daitezke mugikortasun azaroak dituzten herritarrentzat. Leku berera iristeko buelta handiagoa eman behar izaten dute batzuetan, edo buruan eskema bat egin nondik nora joan daitezkeen jakiteko. ■■■

PLASTIKO
PLUSKA
BATZUK
JARRI URETAN,
ITSASOAN
BEZALA SENTI
DADIN

@garbinubela



XS arkitektura

herrikobarra, 11 behea • ZARAUTZ • 943-13 43 58

www.xsarkitektura.com

eraikuntza zerbitzuak
eraikinen mantenua
errehabilitazioak
proiektuak
txostenak
ITE-ak
obrak



ZINKU
ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzen erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

*deitu eta eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe*

Ander Zinkunegi
667 74 02 79



Zarautz

Hileta Zerbitzuak
1962. urtetik zure zerbitzura

24 ordu zure zerbitzura
Beilatokia • Lekualdatzeak •
Eginbide guztien tramitazioa

Araba kalea 35 • ZARAUTZ
943-89 49 37
info@zarautzhiletazerbitzuak.eus



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea sukaldea
bainugela ...
leihoak
etxeko altzariak

eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu

 Geltoki bidea, 1 • ZARAUTZ •  943-13 50 16 • www.biyona.net

Mantso-mantso mendian gora



TESTUA: BITTOR ANDRES

Maiatzaren 23an, Talai Mendi Trail mendi lasterketa antolatu genuen, Talai Mendi elkarteko kideok. Giro ederra izan zen bertan, eta ikusle bati baino gehiagori sartuko zitzaion mendian oinez edo korrika aritzeko gogoak. Ez da gutxiagorako, mendian ibiltzea deskonektatzeko eta naturaz gozatzeko modu bikaina delako, eta jende asko ezagutzeko eta harremanak sendotzeko aukera ematen duelako. Orion eta Aian, gainera, baditugu horretarako ibilbide ederrak. Mendian inoiz ibili ez denari gomendatuko nioke poliki-poliki hastea. Hasieran, oinez egin beharko ditu ibilbide errazak, Itxaspeko buelta, esaterako. Hori eroso egiten duenean, Kukuarri aldera joan daiteke, eta Pagoeta inguruan ere baditu bidezidor bikainak. Garrantzitsua da lehen saioetan oinez hastea, eta pixkanaka-pixkanaka korrika tarte txikiak egitea, beti ere osasuna zainduta.

Hain zuzen ere, teknologia berriek aukera ematen digute

korrika dihardugun bitartean egiten ari garen ahalegina neurtzeko. Neu, esaterako, duela hogeit urte korrika hasi nintzenean, ez nengoen sasoi onean. Lehen saioan Ikastola paretik autobide azpira egin nuen korrika, eta lehertuta etxera bueltatu nintzen. Ez nuen etsi, ordea, eta Zarauzko lagun batek gomendatuta, pulstometroarekin korrika hasi nintzen. Esan zidan denbora luzez korrika egiteko aukera ematen zidan erritmoa aurkitu behar nuela, nire pulsuari erreparatuta. Hasieran, poliki-poliki hasi nintzen, baina segituan nabarmendu nuen hobetzen ari nintzela. Erretzeari utzi nion, eta korrika egiteko harra barruraino sartu zitzaidan; hilabete gutxian, nire bizitza zeharo aldatu zen.

Handik urte batzuetara, berriz, Euskal Herrian mendi lasterketak antolatzen hasi zirenean, lagun batek aipatu

**GARRANTZITSUENA
EGUNEZ EGUN URRATS
TXIKIAK EGITEA DA**

zidan Zegama-Aizkorri lasterketa antolatuko zutela, eta animatuko al ginen probatzera. Orduan, errepidean soilik korrika aritzen ginen, eta pixkanaka mendi aldera korrika hasi ginen probatzeko. Kontuan hartu behar da mendian eta errepidean korrika egitea oso desberdina dela, mendi aldean erritmo aldaketa handiak izaten direlako. Joan gaitezke korrika, gero oinez aldapa igo eta, segidan, berriz ere korrika eta saltoka aldapan behera joan. Lehen saioa mantso-mantso egin genuen, baina azkar hartu genion gustua. Ordutik, beti mendian korrika aritzen naiz, eta ez naiz damutzen, mendian korrika egiteak sekulako askatasun sentazioa ematen didalako.

Beraz, lotsagatik edo beldurragatik oraindik mendian korrika egitera ausartu ez direnak, mantso-mantso hastera animatuko nituzke. Garrantzitsuena ez delako lehen egunetik denak emanda hastea, egunegun urrats txikiak egitea baizik. Helburua markatu eta hori lortzen saiatzea. ■

Elkar Ekin Lanean, bazterkeriatik lanera

Gipuzkoako Foru Aldundiak Elkar Ekin Lanean 2021-2023 estrategia aurkeztu du; bazterkeria arriskuan edo egoeran dauden pertsonentzako 3.500 lanpostu berriren sorrera bultzatzea du xede

Bazterkeria arriskuan edo egoeran dauden pertsonak gizarteratu eta lan munduan txertatzea helburu duen Elkar Ekin Lanean 2021-2023 estrategia aurkeztu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Enplegu Inklusiboa eta Kalitatezkoa sustatu nahi da egitasmo honekin. "Nazioartean eredu gara lan babestuan eta ekonomia sozialean, hirugarren sektore sozialeko enpresei eta kooperatibei esker, hurrenez hurren. Horixe bera lortu behar dugu enplegu inklusiboan. Lan merkatuan sartzeko eta finkatzeko zailtasun gehien duten pertsonen kalitatezko enplegua, enplegu duina, inklusiboa eskaintzeko sistema garatu behar dugu", adierazi du Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiak.

Tresna nagusia, lana
Horretarako, 16 lan lerro eta 30 neurri zehatzetan banatutako estrategia landu du Foru Aldundiak, Etorkizuna Eraikiz programaren babespean eta Eusko Jaurlaritzaren 2030 Enpleguaren Euskal Estrategiarekin bat eginez. "COVID-19ak eragindako krisialdi sozialari aurre egiteko palanka izango da, batetik, eta

epe ertainera begira, berriz, gizarte desberdintasunei mugak jartzeko tresna partekatua", aurreratu du diputatu nagusiak. Lana izango da tresna nagusia "bizitza duina" bermatzeko, "bazterkeria arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko" eta "bizitza proiektu bat berdintasunez garatu ahal izateko", dio diputatu nagusiak.

Estrategia zabal eta partekatu honen bitartez, erakundeen, garapen agentzia, enpresa eta eragileekin elkarlanean, datozen hiru urteetan, bazterkeria arriskuan edo egoeran dauden pertsonentzako 3.500 lanpostu berriren sorrera bultzatzea du

helburu Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Pandemia aurreko datuen arabera, lurraldean ia 37.000 lagun daude pobrezia larrian eta, gainera, egoera horretan kroniko bihurtzeko arriskua dago. Bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen gain, prestakuntza baxua

BAZTERKERIA ARRISKUAN EDO EGOERAN DAUDENENTZAKO 3.500 LANPOSTU SORTU NAHI DITUZTE

Elkar Ekinen onuradunak

JOSEPH SUTARGI

"22 urte ditut. Jatorriz, marokoarra. Donostian daroatzat hiru urte. Egun, Ategorrietan bizi naiz, harrera etxe baten. Oso egun zailak pasa ditut, kale gorrian. Orain, goizez, tailerrera joaten naiz; arratsaldean, EPARA, ikastera. Roberto da nire monitorea. Hark erakusten digu arotzeria, egurra bola landu... Ofizio bat ikasita irtetea gustatuko litzaidake, lana aurkitu, familiari lagundu..."

CAROLINA KALEXKA

"Edozer gauza egiteko ezgaitua nengo. Agorafobia sentitzen nuen. Lan barik nengo. Kalekkan, sentsazio ugari sentitu nuen proiektuarekin lehen harremana izan nuenean. Inoiz halakorik egin barik nengo: ez entxufe bat aldatu, ez egurra landu... Azken egunean, gertatutakoak hausnartzen, ohartu nintzen ahaztu nuela noiz desagertu zen agorafobia. Gainera, ume batek bezala disfrutatu nuen; pozarren".



Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusia, Elkar Ekin Lanean estrategia aurkezten.

duutenak, langabezian kroniko bihurtu diren pertsonak, 45 urte baino gehiagorekin langabezian daudenak nahiz biolentzia matxistaren biktimak kontuan izango ditu, bereziki, Elkar Ekin Lanean estrategia.

Dirulaguntza deialdi berria

Estrategiaren hedapenerako, datozen hiru urte hauetan 36,6 milioi euro bideratzea aurreikusten du Gipuzkoako

Foru Aldundiak. Horietatik, ia 3 milioi euroko dirulaguntza deialdia onartu berri dela aurreratu du diputatu nagusiak. Deialdi garrantzitsu honek igoera nabarmena izango du (%250ekoa); izan ere, 2020ko deialdian 1,2 milioiko zuzkidura izan baitzuen.

Elkar Ekin Lanean 2021-2023 estrategiak hiru alorretan eragingo du, horiei lotutako sei helburu nagusi lortze aldera.

JUAN ANTONIO EMAUS

"Extremaduran jaio nintzen. Baina Arrasaten hezi naiz. Kale gorrian nintzen eta aukera izan nuenean, Emausen eman nuen izena. Ikastaroa egin nuen, ondoren, lan egiteko aukerarekin, eta hemen nago, lanean. Oso pozik nago. Bizitzeko gogoia eman diit honek. Nire lanean gustatzen zaidana da gauzak konpontzea, margotzea, bonbilla bat jartzea..".

VANESA EDE EMAKTIVA

"Une oso gogorrek pasa ditut. Inoiz ez dut lortu kontratu batekin lan egitea. Nahiz eta umeak zaintzen aritu naizen, garbiketan praktikak egin ditut... Orain nago Emaktivan. Espero dut positibotasuna lortzea, aukera gehiago izatea bizitzan aurrera egiteko, alabarentzako erreferente izatea, amak lan ondo egiten duela ikus dezala. Eta jendeak nigan sinistu dezala".

Lehenik, lanean diharduten erakunde eta eragileen sistema trinkotzeko ahalegina egingo du, lankidetzazko gobernantza eredu bat garatuz. Dagoeneko abian da strategiaren zabalkunde gidatuko duen mahai instituzionala eta hurrengo pausoa izango da gizarte eta ekonomia alorreko eragileak batuko dituen mahaia osatzea.

Bigarrenik, enplegu inklusiboa eta kalitatezkoa zabaltzeko aukerak indartzea izango du helburu Elkar Ekin Lanean Estrategiak. Horretarako, lanpostu berriak eratzeko esfortzuaz gain, inklusioaren ikuspegia landuko duten enpresa berrien sorrera sustatuko da, dagoeneko abian daudenen jarduera sendotzeaz gain. Hirugarrenik, bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen aukera berdintasunez lan munduan txertatzeko aukera izan dezaten eragingo du estrategia honek, Eusko Jaurlaritzarekin eta Lanbiderekin elkarlanean.

Hori egiteko, 16 lan lerro eta 30 neurri konkretu ezarri ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Besteak beste, dirulaguntzak, gizarteratze enpresa berrien sorrera, informazio sistema adimenduna, txertatze soziolaboraleko gune berezia eta halako egitasmoak sustatuko dira.

Neurri horien guztien inpaktu gisa, hiru urtean 4.000 lagunengana iristea aurreikusten da, 2.500 lagun formakuntza bideratu eta 3.500 lanpostu berrien sorrera bultzatu. Gainera, 2023rako lurraldean hamabost gizarteratze enpresa edukitzea ezarri dute xede. ■

Irailaren 30era arte aurkez daitezke lanak Aiako Argazki Lehiaketara

Aiako Udalak Argazki Lehiaketa antolatu du, eta irailaren 30era arte aurkez daitezke lanak, kultur etxean. Dena dela, oraingo honetan izango du berezitasunik lehiaketak, gaia librea izango delako; hori bai, herriarekin lotura izan behar dute lehiaketara aurkezten diren lanek. Bestalde, argazkiek originalak izan behar dute eta lehendik argitaratu gabeak.

Partehartzaile bakoitzak gehienez 4 argazki aurkez ditzake, koloretan edo txuribeltzean, eta 2020 edo 2021ean ateratakoak izan behar dute. Pendrive batean eta argazki paperean aurkeztu behar dira, 30x20cm-tako

neurrian eta formatu horizontalean. Argazki bakoitzak bere izenburua izan behar du eta horrez gain, parte-hartzailearen datuak zehazten dituen gutunazala ere aurkeztu beharko da argazkiekin batera.

Sariak

Lehiaketa bi ataletan banatuko dute, bata Aian erroldatutakoei zuzendua izango da eta bestea gainontzekoei. Hala ere, bi multzotako sariak kopuru bera izango dute: 1. saria 200 euro, 2. saria 170 euro eta 3. saria 120 euro. Horrez gain, otar bat zozketatuko da sarituak izan ez direnen artean.



Argazki lehiaketako erakusketa. AIORA

LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Onartutako lan guztiekin erakusketa jarriko dute Aiako Kultur Etxean, eta ikusleek euren botoarekin erabakiko dute irabazleak zein diren eta zein lanekin osatuko den 2022ko egutegia.

Martin Iriondo omendu du Orioko Udalak



Martin Iriondori omenalidia. IÑIGO GAITON

Martin Iriondo korrikalari gaztea omendu zuen Orioko Udalak, maiatzaren 26an udaletxean egin zuten ekitaldian. Horrela, aitortza egin nahi izan zioten gazteari martxoaren 21ean Espainiako txapelketa irabazteagatik. Pista estaliko 3.000 metroko progan gailendu zen Iriondo.

Anuska Esnal alkateak ekitaldian azpimarratu zuen garrantzitsua dela Iriondok lortutakoa, baina are balio handiagoa duela herrian atletismoaren bueltan sortu den eskolak: "Handia da Martinek Espainiako txapelketa irabazi izana. Horrez gain, haur eta gaztetxoak elkarrekin entrenatzen ikusteak ere poztu egiten gaitu, kirolarekiko maitasuna elkarbanatuz. Korrika dabilen jendearen artean giro eta zaletasun handia sortu da, eta ohorea da guretzat Martin hurrengo belaunaldientzako oinarriak jartzen ikustea". Hitzartzea bukatu aurretik, gogor entrenatzen jarraitzera animatu zuen Iriondo.

Espero gabeko omenaldia

"Ez nuen espero halako ekitaldirik. Pozgarria da arraunaz gain beste kirolletako lorpenei ere udalak balioa ematen diola ikustea", hasi zen hizketan Iriondo pozarren. Aurtengo denboraldia "borobila" ari da izaten berarentzat: "Lehen lasterketetan Euskadiko errekorra lortu nuen, gero ondo jarraitu genuen lanean, eta horri esker gailendu nintzen Espainiako txapelketan".

Pista estalian irabazi zuen txapelketa Iriondok, eta udan Lleidan izango da aire zabalean egingo den Espainiako txapelketan. Datorren denboraldian, berriz, 18 urtez azpiko mailan egingo du korrika: "Koska bat gora egitea tokatuko zait".

Etxez etxeko zaintza zerbitzua indartzea adostu du Orioko Udalak



Azurza etxean daude Gizarte Zerbitzuetako bulegoak. IÑIGO GAITON

Orioko Udalbatzak apirilaren 29ko ohiko bilkuran onarpena eman zion, aho batez, etxez etxeko zaintza arautzen duen udal arautegian egindako aldaketei. Orioko alkate eta Berdintasuna eta Gizarte Ongizate batzordeko buru Anuska Esnalen esanetan, onarpen horri esker «indartu» egingo da mendekotasuna duten herritarrei etxebizitzetan ematen zaien zaintza.

Orioko Udalak 365 egunez emango die zerbitzua behar dutenei, udalbatzak onartutakoari esker. Esnalek azaldu duenez, Gizarte Zerbitzuen alorrean «oinarrizkoa» da etxez etxeko zaintza. «Mendekotasun egoeran dauden pertsonak etxean ahalik eta denbora gehien mantentzeko helburuarekin egiten da, maite duten jendearen ondoan, hori onuragarria delako zainduaren

eta familiaren ongizatearentzat. Horrez gain, familiako kideen kontziliazioarentzat ere lagungarria da», argitu du alkateak.

Gizarte Zerbitzuen sailean etxez etxeko zerbitzua «oso preziatua» dela ere nabarmendu du, behaketarako tresna modura ere balio dielako: «Zainduak eta familiek izan ditzaketen beste beharrezanez buruzko informazio asko biltzen dugu zerbitzuari esker».

"KORONABIRUSAREN KRISIA HASI ZENEAN ERABAKI GENUEN EZ GENUELA LAGUNTZA KOPURUA MUGATUKO"

Laguntza eskaerak, gora

Egoeraren arabera, modu bateko edo besteko laguntza ematen da etxebizitzetan, eta hori izan daiteke garbiketa lanetarako, higiene pertsonalerako edo Eguneko Zentrora laguntzeko, besteak beste.

Laguntza jasotzeko egun kopurua ere beharrezko arabera zehazten da, gizarte langileak erabiltzailearekin edota bere familiarekin egindako prozedura eta elkarrizketen bidez adostuz.

Esnalek dioenez, Gizarte Zerbitzuetarako sarrera izaten da sarritan etxez etxeko zerbitzua. «Kasu bakoitza desberdina izan ohi da, eta hori da guretzat erronkarik handiena; pertsonak gure baliabideetara egokitu baino, baliabideek egokitu behar dutelako pertsona bakoitzera. Etxez etxeko laguntza oso baliabide moldagarria da, eta sarritan tele-alarmarekin batera gizarte zerbitzuetarako sarbidea izaten da, lehen pausua alegia».

Laguntza kopuruen mugen inguruan galdetuta, alkateak zehaztu du ez dagoela kupo zehatzik: «Koronabirusaren krisia hasi zenean erabaki genuen ez zela laguntza kopurua mugatuko, egoeraren larritasunak hala eskatzen baitzuen. Horregatik, gizarte alorrera bideratu dugun aurrekontua bost aldiz handiagoa izan da azken bi urteetan, laguntza behar duten norbanako eta familien kopuruak gora egin duelako». ■■■


Oporrak non?

Marratzu zure burua uharte galdu honetan eta basamortuan, gameluaren gainean. Nor marrartzuko duzu aldamenean? Lagunen bat? Txakurra? Kolore biziz margotu.



Gerezi garraia

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamarka dira guztira.



U		Z	R
	E		
I		D	
	R	Z	
	R	U	
Z	E	D	I

Sudokua

Bete itzazu sudokua lau zuriak IZURDE hitza osatzen duten letrak kontuan hartuta (I, Z, U, R, D eta E). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

IRAGARKI SAILKATUAK

ALOKAIRUA

Autokarabana eta karabanentzat plazak alokagai, garaje estalia eta beharrezko ekipamentuarekin. Aia-Orio. Tel. 620 85 69 53 (goizez).

Alokatzeko garaje bila Goiko kalen. Tel. 690 27 28 42.

Garaje bat alokatzen da Anibarko portuan. Tel. 649 22 87 87.

Bikote jator batentzako etxe polita alokatzen dut Orion. Tel. 722 33 09 07.

LAN BILA

Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketa lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Tel. 642 69 60 38.

Lan bila nabil, etxe garbiketarako egiteko prest. Tel. 641 44 60 70.

Etxe lanak egiteko edo zaintzan lan egiteko prest nago. Tel. 631 82 44 52.

Lan bila dabilen emakumea naiz. Bikaina naiz haurrak zaintzen, eta garrantzi handia ematen diot garbitasunari eta truckuntasunari. Arduratsua naiz, eta arreta handia jarzten dut nire lanean. Berehala lanean hasteko prest nago. Tel. 602 08 98 86.

Iragarkietarako bokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943-83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. Barneko zein kanpoko langile bezala, edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Samantha. Tel. 643 85 78 54.

Emakumea adineko pertsonak zaintzeko edo orduka lan egiteko prest. Harremanetarako deitu honako telefono zenbakira: 697 65 05 19.

Ingeleseko klase partikularrik emateko prest nago. 20 urteko neska oriotarra naiz, ordutegi malgua daukat. Tel. 690 06 63 11.

Emakume gaztea etxeko lanak, garbiketarako edo taternako lanak egiteko eskaintzen da. Egun osoa edo orduka. Tel. 627 09 07 06.

SALGAI

Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFIS motorra. Abendura arte aseguru ordaindua du. 3.500 euro. Tel. 657 77 45 11.

BESTELAKOAK

Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin du zer egoeratan dagoen: ITVa pasa gabe, kolpeekin, aberiatura... Tel. 623 17 95 37.

Orion bizi den familia bat autokontsumorako baratze ekologiko bat egiteko lurzoru baten bila dabil alokairuan Orion edo inguruan. Tel. 657 71 96 14.

MAILAN (Tren-geltoki atzealdean). Jantokiko antzinako altzariak, kaobazkoak, kalitate handikoak. Aukera ona. Deitu: 943-89 03 45 edo 669 78 19 63.

ITSASOA

Eguna	Itsasgora	Itsasbehera	Ilgaria
1	10:16 eta 22:38	03:48 eta 16:10	☉
2	11:27 eta 23:47	04:54 eta 17:19	☉
3	12:38	06:02 eta 18:29	☉
4	00:54 eta 13:40	07:08 eta 19:33	☉
5	01:54 eta 14:31	08:04 eta 20:27	☉
6	02:45 eta 15:14	08:52 eta 21:14	☉
7	03:28 eta 15:51	09:33 eta 21:55	☉
8	04:07 eta 16:25	10:10 eta 22:33	☉
9	04:42 eta 16:58	10:44 eta 23:09	☉
10	05:17 eta 17:30	11:17 eta 23:44	☉
11	05:51 eta 18:03	11:50	☉
12	06:26 eta 18:37	00:18 eta 12:24	☉
13	07:03 eta 19:14	00:54 eta 12:59	☉
14	07:42 eta 19:54	01:32 eta 13:38	☉
15	08:25 eta 20:40	02:13 eta 14:21	☉
16	09:15 eta 21:33	03:00 eta 15:11	☉
17	10:13 eta 22:32	03:54 eta 16:09	☉
18	11:18 eta 23:38	04:55 eta 17:14	☉
19	12:25	06:00 eta 18:22	☉
20	00:46 eta 13:29	07:05 eta 19:27	☉
21	01:51 eta 14:27	08:05 eta 20:27	☉
22	02:51 eta 14:21	09:02 eta 21:24	☉
23	03:47 eta 16:12	09:54 eta 22:18	☉
24	04:41 eta 17:02	10:44 eta 23:11	☉
25	05:33 eta 17:51	11:33	☉
26	06:23 eta 18:40	00:02 eta 12:21	☉
27	07:13 eta 19:29	00:52 eta 13:09	☉
28	08:01 eta 20:19	01:42 eta 13:57	☉
29	08:50 eta 21:09	02:31 eta 14:46	☉
30	09:40 eta 22:01	02:31 eta 15:38	☉

FARMAZIAK-EKAINA

ZARAUTZ

10 eta 22. ETXEERRIA: Gipuzkoa kalea, 17 / 943-83 23 98

5, 6, 26 eta 27. ESPARZA: Santuturri plaza, 5-6 / 943-50 47 83

11, 17, 23, 28 eta 29. GALLO: Zigorria kalea, 17 / 943-13 40 19

7. GARMINDE: Gipuzkoa kalea, 68 / 943-12 40 19

9, 12, 13, 15, 16, 21 eta 25. ITURRIA: Kale Nagusia, 12 /

943-83 29 70

8 eta 14. LARRAÑAGA: S. Frantzisko, 16 / 943-13 38 14

18, 24 eta 30. REDONDO: Urdaneta kalea, 8 / 943-13 31 83

19 eta 20. ZULAIKA: Bizkaia kalea, 41 / 943-13 39 94

IKASI ingelera Aian

Uztailean
Taldea txiki edo klase indibidualak
Informazio gehiago:
Jenny: 688 74 51 13
Gareth: 688 77 77 68

AGENDA

AIA

EKAINAK 4 OSTIRALA

Ipuin kontaketa. Bertoko eta urrutiko ipuinak. Nerea Ariznabarretaren eskutik. 6-12 urte bitarteko haurrei zuzendua. 17:30ean.



EKAINAK 5 LARUNBATA

Kontzertua. Amak taldea. Aiako probalekuan, 19:00etan.

ORIO

EKAINAK 11 OSTIRALA

Bakarrizketa. Zuhaitz Gurrutxagaren FutbolisTOK. Sarrera 5 euro. Arraunetxen, 19:00etan.

EKAINAREN 14TIK 17RA

Musika eskolaren entzunaldiak (irekiak edo itxiak, egoeraren arabera).



EKAINAK 18 OSTIRALA

Kontzertua eta disko-aurrekezpena. Iratz Urkizu. Sarrera 5 euro. Arraunetxen, 19:00etan.

EKAINAK 26 LARUNBATA

Kontzertua. Amak taldea. Sarrera 10 euro. Karela kiroldegian, 19:00etan.

ORANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

Eusko Gudari, 5 · ORIO · 943-83 12 36

Puntua jarrita

Joseba Altuna
(Doinua: Balearen bertsoak)

1

Futbolakin bukatu ta arraunakin hasi

urterokoa degu
galdu-irabazi
bihotzaren taupadak
emozioz bizi
banderak balkoietan
horrek adierazi.

2

Negun futbolarekin
gogo ta kemena
Orioko, Reala
aurten bada tema
Covida eta kopa
zer esan hurrena
gora gure Imanol
zu zera onena.

3

Udan oriyotarrak
horiz margotuta
neska eta mutilak
arraunei lotuta
bihotzez bizi degu
zuei aitortuta
nahiz eta ezin izan
animoak luza.


Hurrengo bertsolaria:

Xxxx.

Puntua:

Xxxx.

Hasi Bertsoan atalean puntuka ariko dira bertsolariak. Oraingoan Joseba Altunari jarri dio puntua Iñaki Alkainek: "Futbolakin bukatu ta arraunakin hasi". Hurrengoari ere jarri dio puntua.



Saioa Perona Balda



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

CIFP USURBIL LHII

Aurrematrikula

Maiatzak 21 - Ekainak 18



Administrazioa eta Kudeaketa



Energia eta Ura



Instalazioa eta Mantenua



Fabrikazio Mekanikoa



Elektrizitatea



Hartu hitzordua!!



943-36 46 00

www.lhusurbil.eus